

PEDAGOGIA

Alaitz JAUREGI ITURRIOTZ

ESKOLA BERRIAK IZATETIK,
PROIEKTU
BERRIZTATZAILEAK
AURRERA ERAMATERAINO

TFG/*GBL* 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria /
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**ESKOLA BERRIAK IZATETIK, PROIEKTU
BERRITZAILEAK AURRERA
ERAMATERAINO**

Alaitz JAUREGI ITURRIOTZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Alaitz JAUREGI ITURRIOTZ

Izenburua / Título

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzailleak aurrera eramateraino

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Irene LOPEZ-GOÑI

Saila / Departamento

Pedagogia saila / Departamento de pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarriko prestakuntzako modulua/ak bide eman digu proiektua kokatu ahal izateko. Mugimendu eta eskola berriztatzaile eta alternatiboetarako buruzko ikerketa honetan, gure oinarri izan dira hezkuntza erakundeak, teoria desberdinak, aditu desberdinak, proiektu eta unitate didaktikoak, curriculumaren zatiak... ezagutzea. Ondoren lan honetarako gure ezagutzak gehiago sakondu behar izan baditugu ere, oinarri sendo bat izatea ahalbidetu digulako.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak esparru eman dio eskoletan lantzen diren gai desberdinak sakonagotik ezagutzeari. Honela eskola desberdinen azterketa egiterakoan, beren metodologia eta gai bakoitzaren lanketa hobe ulertzeko balio izan digu, gai desberdinen inguruko oinarri bat eskainiz, ondoren eskola desberdinetako irizpideak konparatu ahal izateko.

Halaber, Practicum modulua/ak ahalbidetu digu, unibertsitatean ikasitako teoria eta errealitatearen arteko konparaketa egiten. Honetaz gain, eskola desberdinak ezagutzeko aukera izan dugunez, ikastetxe desberdinen funtzionamendua ikusi dugu. Azken finean, guztiek oinarri berdina duten curriculumetik hasita, hau aplikatzerako garaian erabiltzen dituzten metodologia desberdinak ezagutu ditugu eta guk ere praktikan jarri. Gainera irakasle desberdinekin hitz egiteko aukera izan dugu eta honela hauek hezkuntzaren inguruan duten iritziz sorta ere ezagutzea ahalbidetu digu. Hau guztia lan honen eskola desberdinen azterketa egiterakoan oso baliagarri suertatu zaigu, hauek hobe ulertzen lagundu digulako.

Azkenik, aukerako modulua/ak lanean landutako pedagogiko edo ideologiko desberdinen teoriak hobe ulertzen lagundu digu. Hauen azterketarako PT aipamenak oinarri bat izatea ahalbidetu digularik.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira sarrera eta ondorioak atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Gradu amaierako lan honetan, hezkuntzan egon diren eta dauden ideologia eta proiektu berriztatzaile edo alternatiboen inguruko azterketa egiten da, zenbait kasutan hauen aplikapen praktikoarekin batera. Hiru atal desberdinetan banatuta dago. Lehenengo zatian, denboran zehar hezkuntzan egon diren aldaketa esanguratsu batzuen inguruko xehetasun txiki batzuk azalduko ditugu, idazketaren sorreratik gaur egunera iristen dena. Jarraian ikerketa lau eskola zehatzetara mugatuko da. Eskola hauetako bi Euskal Herrian daude, beste bat Meridan eta azkena Argentinan. Ikastetxe hauen inguruko ezaugarri desberdinak aztertuko dira, batez ere beren ideologian eta honen sortzaileari arreta berezia eskainik. Azkenik, hauetako eskola batean egun erabiltzen den proiektuetako bat erakutsiko da, teorian ikusitakoaren emaitza praktiko moduan.

Hitz gakoak: berrikuntza; hezkuntza alternatiboa; kompetentziak; proiektuak; ideologiak.

Resumen

En este trabajo de fin de grado, se hace un estudio de las diferentes ideologías y proyectos alternativos o innovadores que ha habido o que hay en educación, en algunos casos acompañado con una aplicación práctica de los mismos. El trabajo está diferenciado en tres apartados diferentes. En la primera parte, se darán unas pequeñas pinceladas sobre los cambios educativos más relevantes acaecidos a lo largo del tiempo, desde el comienzo de la escritura, hasta nuestros días. Seguidamente, el estudio se centrará en cuatro escuelas específicas, de las cuales dos se encuentran en el País Vasco, otra en Mérida y la última en Argentina. Se analizarán distintas características de estas escuelas, centrándonos especialmente en sus ideologías y fundadores. Por último, mostraremos un proyecto utilizado actualmente por una de estas escuelas, a modo práctico de lo expuesto en la teoría.

Palabras clave: innovación; educación alternativa; competencias; proyectos; ideologías.

Abstract

In this final degree work, it is done a research about the different alternatives or innovative ideologies and projects which were or are in Education. In some cases, they have their practical application. The work consists of three different parts. In the first one, we can see some relevant changes that have occurred during The History of Education from the creation of writing to nowadays. Next, the research is focused on four different schools in order to see how they work. Two of those schools are located in The Basque County, the third one is in Merida and the last in Argentina. We analyze the different characteristics of those schools, paying more attention to their ideologies and founder. Finally, we show a real project which is used in one of those schools as a pragmatic result of the shown work.

Keywords: innovation; alternative education; competency; project; ideologies.

AURKIBIDEA

Introducción	1
1. Garapenaren aztarnak	3
2. Eskola alternatiboak	12
2.1. Pedagogoen teorian oinarritutako eskolak 2.1	13
2.1.1 Paideia escuela libre 2.1.1	13
2.1.1.1. Eskolako ideologiaren sortzailearen biografia 2.1.1.1	13
2.1.1.2. Eskolaren historia 2.1.1.2	15
2.1.1.3. Eskolaren oinarri teorikoa 2.1.1.3	15
2.1.1.4. Metodologia 2.1.1.4	18
2.1.1.5. Ebaluazioa 2.1.1.5	19
2.1.2. Colegio del Sol 2.1.2	20
2.1.2.1. Eskolako ideologiaren sortzailearen biografia 2.1.2.1	20
2.1.2.2. Eskolaren historia 2.1.2.2	22
2.1.2.3. Eskolaren oinarri teorikoa 2.1.2.3	22
2.1.2.4. Metodologia 2.1.2.4	23
2.1.2.5. Ebaluazioa 2.1.2.5	27
2.1.3. Tximeleta eskola 2.1.3	27
2.1.3.1. Eskolako ideologiaren sortzailearen biografia 2.1.3.1	28
2.1.3.2. Eskolaren historia 2.1.3.2	32
2.1.3.3. Eskolaren oinarri teorikoa 2.1.3.3	33
2.1.3.4. Metodologia 2.1.3.4	34
2.2. Proiektu bidezko metodologia duen eskola 2.2	35
2.2.1 Erentzun ikastola 2.2.1	35
2.2.1.1. Ikastolaren historia 2.2.1.1	37
2.2.1.2. Ikastolaren oinarri teorikoa 2.2.1.2	37
2.2.1.3. Metodologia 2.2.1.3	38
2.2.1.4. Ebaluazioa 2.2.1.4	38
3. Goazen lanera	39
Conclusiones	
Erreferentziak	
Eranskina	

INTRODUCCIÓN

"La verdadera educación consiste en obtener lo mejor de uno mismo" Mahatma Gandhi [Disponible en (31-05-2013) <http://www.sabidurias.com/>]

Tomando como referencia esta frase dicha por el gran pensador y político Mahatma Gandhi, puede hacer cuestionarnos la educación actual que se desempeña en nuestras escuelas. La gran transformación que está viviendo la sociedad a lo largo de estos últimos años, no ha ido paralela a las diversas necesidades educativas que necesita esta sociedad.

El modelo actual de nuestra enseñanza dificulta un desarrollo integral de los alumnos para adaptarse a las necesidades reales de esta sociedad. Una de las funciones primordiales de la escuela, debería ser dar y enseñar a los alumnos las herramientas necesarias para que se puedan ir adaptando a las necesidades cambiantes de esta sociedad tan globalizada.

A lo largo de la historia, la educación se ha tenido que ir adaptando e innovando a las necesidades propias de cada época, para poder dar respuesta a las necesidades reales que se les planteaba en ese momento. Es por ello que en la actualidad sería conveniente realizar una nueva adaptación en el sistema educativo, para poder tener la capacidad de respuesta necesaria a las necesidades actuales.

Esta ha sido la razón principal para elegir el tema a desarrollar en este trabajo de fin de grado, "proyectos de innovación curricular" y "escuela, conocimientos y competencias". Es un tema que permite desarrollar ciertas competencias necesarias para poder realizar una mejor labor educativa y así obtener lo mejor de cada uno de los alumnos.

Para el desarrollo de este trabajo se ha utilizado inicialmente un planteamiento general, desembocando en un proyecto específico de una escuela Navarra. Al comienzo del mismo, se exponen diversos pasos adaptativos dados en diferentes momentos puntuales a lo largo de la historia, sabiendo que estas son simples pinceladas de lo ocurrido realmente a lo largo del tiempo, pudiendo ser éste un tema

muy amplio a desarrollar. Hemos optado por este inicio para poder mostrar una visión general de los diferentes pasos que se han dado en la educación a lo largo del tiempo.

Seguidamente, el trabajo se centra en cuatro escuelas específicas actuales, con un planteamiento educativo distinto entre ellas, pero con la característica común, de que cada una de ellas ha desarrollado un planteamiento innovador o alternativo a lo habitualmente ofrecido en el sistema actual de educación. Lo cual nos permite ver la aplicación de casos concretos de distintas teorías ideológicas.

Para finalizar el trabajo, se expone un proyecto específico de una de las cuatro escuelas anteriormente citadas. Mostrando la aplicación real que se lleva a cabo en dichas aulas.

Al ser un trabajo personal y especial para este trabajo de fin de grado, la información reunida para el mismo, hace una pequeña aportación referencial a las distintas investigaciones realizadas sobre las posibles alternativas innovadoras que existen en la actualidad en el sistema educativo. Puede ser además, una pequeña aportación para aquellas personas interesadas en el tema.

Este trabajo nos ha permitido obtener mayor habilidad y práctica para poder profundizar en la teoría aprendida a lo largo de la carrera, centrándonos especialmente en dos puntos: por un lado en el aspecto formal del trabajo y por otro, el gran conocimiento obtenido sobre el tema tratado.

Al tener que buscar muchas y diferentes fuentes de información, hemos podido descubrir distintas perspectivas sobre la metodología e ideología de la educación, ampliando gratamente los distintos puntos de vista que teníamos anteriormente.

Finalmente, quisiera agradecer expresamente a mi tutora Irene Lopez-Goñi, por la guía, ayuda y apoyo incondicional mostrado durante todo el proceso de la elaboración de este trabajo.

1. GARAPENAREN AZTARNAK

Pertsona bakoitzaren ikaskizuna, bere ingurune, behar, ohitura, kultura, interesen... araberakoa izan oi da eta beraz, garaiaren arabera ere ikaskuntza mota desberdinak transmititu izan dira. Kapitulu honetan, gizakiaren historian zehar hezkuntzan esanguratsuak izan diren momentu desberdinak aztertuko ditugu. Betiere jakinik, hau ikerketa irekia dela eta beti osatu daitekeela.

Lehenengo gizakien ikaskuntza sua egitea, ehizatzea, landare jangarriak ezagutzea, armak eta ontziak egitea... zen. Hauek, beren eguneroko ekintzak, beren tribuetako lagunak kopiatuz eta hauek errepikatuz ikasten zuten.

Aurrera jarraituz, Bowen, J., (1985) azaltzen duen bezala, idazkeraren sorrera etorri zen. Honek ezagutzen transmisioan aldaketa izugarria ekarri zuen, lehen eskolak sortuz. Honela azaltzen du bere liburuan, K.a. 2350. urtean Sargon de Agade erregeak Acad eta Sumer (Sumerioak) kulturak elkartu zituen. Elkartze honek gizon letradunaren sorrera ekarri zuelarik. Mende bat geroago, inperio hau Gutien herriak inbaditua izan zen, honek idazketa bertan behera geratzea ekarri zuelarik.

Ehun urte geroago, Ur-Nammu De Uruk-ek Sumerio-en independentzia lortu zuen eta berarekin kulturalki oso aberatsa eta garrantzitsua izango zen hezkuntzaren garapenerako etapa hasi zen.

K.a. 2125 urtea eta K.a. 625. urtera bitartean bizitza intelektuala politikaren gora-beheretatik aldendua egon zen, honek bizitza intelektuala mantendu ahal izan zuelarik. Denbora tarte honetan, bizitza sozial eta politikoan hiru alderdi garrantzitsu egon ziren hezkuntza mantendu ahal izateko: subiranotasunaren sorrera, gobernuko burokrazia antolatua eta klase sozialen agerpena.

Egin diren ikerketen arabera, K.a. 2000-1500. urteetan Babilonian jakinduria eta ikaskuntzak erlijioarekin atxikimendu handia zuen. Idazten jakiteagatik bakarrik, erreberentzia eta beldurra sortzen zuen. Apaizak jakinduriaren eta kontserbazioaren arduradun kontsideratzen ziren, hauek zirelako idazten zekiten bakarrak.

Bowen, J., (1985) azaltzen digunaren arabera, bigarren milurtekoaren hasieran apaizez gain, laikoak ere ezagutza hau eskuratzen hasi ziren, eskakizun handia zegoelako. Idazketaren ikaskuntza haurtzarotik hasten zen, nahiz eta urte zehatzik ez jakin. Ematen duenez, hasieran ez zegoen oztoporik edonork ikasteko, nahiz eta aurrerago goi mailakoentzat eta gehien bat mutilentzat murrizten zelarik. Eskriba guztiek, burokraziaren adar bakar batean espezializatuak egon behar zuten, esaterako zuzenbidean, medikuntzan, komertzioan, ejertzitoan edo ikaskuntzan.

Bi momatako ikaskuntzak gauzatu behar zituzten. Batetik orokorra deiturikoa, hau taldeka egiten zuten eta "escuela de las tablas" edo "edubba" izeneko etxean lantzen zen. Hau egin ostean, ikaskuntza espezializatua egiten zuten, bakoitzak bere adarrean. 1902-1903. urtean Shuruppak-en egindako eskabazioetan oholtxo mordo bat aurkitu ziren K.a. 2500 urtean kokatu zirenak. Nahiz eta gela gutxi batzuk bakarrik aurkitu.

Orain arte aurkitu diren eskoletan zaharrena Mesopotamian aurkitzen da, Mari herrian. 70 ikasle inguru hartzen zituena. Eskola honi buruz dagoen informazioa, oholtxo batean bakarrik oinarritzen da. Hemen adierazten da, eskolan zuzendari bat zegoela, honi "ummia" deitzen zioten. Honek "adda edubba" izeneko laguntzailea zuen. Irakaslea "dubsar" zen eta honi "seshgal"-k laguntzen zion, hau irakaskuntzan espezializatzen ari zena zen. Eskola honetan diktaketa eta kaligrafiaren ariketak egiten zituzten eta akatsak egiten zituzten guztietan, ikasleak zigortuak izaten zirela ere jakin da.

Mende askotan zehar gizakiaren kezka izan da beren seme-alaben formakuntza. Honi erantzuna K.a. IV. mendean eman zitzaion Atenasen. Atenastarrak izan ziren hezkuntzaren arazoari zuzen eta kontzienteki aurre egin zien lehenak, Paideia formakuntza sortu zutelarik. Toki honetan oinarritzko hezkuntza ezagutzak bakarrik eskuratzen zituzten, ez zen espezializatzen gai jakinetan.

Ezagutzen dugun lehen eskola ofiziala edo akademia, kristo aurretik 388. urte inguruan kokatu dezakegu. "Se trata de la primera escuela de filosofía organizada como universidad, con estatuto, reglamento, alojamiento para estudiantes, salones de clases, museo, biblioteca, etcétera". (Brun, J., 2001, 8)

"no nos es posible precisar con toda exactitud lo que se hacía en la academia, pero parece claro que no se trataba de una escuela formal de enseñanza de las doctrinas de los diálogos platónicos... caso de tener un programa formal de estudios, con toda probabilidad se trataba de estudios matemáticos... en la academia no tenía ciertamente cabida el estudio de la retórica, que al insistir en la forma y en el estilo (según era enseñada en aquella época) obstaculizaba en definitiva la visión y la búsqueda del bien" (Bowen, J., 1985, 150)

Historian aurrera jarraituz, (<http://pedagogia.mx/historia/>) XII eta XIII. mendeetan eskolastika pentsamendua sortzen da, sinesmena eta arrazoimena elkartzeko eginkizunarekin. Garai honetan merkataritza eta lanbideak garrantzia hartzen hasten dira, Erdi Aroko Unibertsitateak sortuz, non Elizak ikasketen norabidea aldatu zuen. Elizak baliabide desberdinak eman zizkion unibertsitateari, beraiek ere bertan sartzeko baldintzarekin.

Erdi Aroko Unibertsitateek lau fakultate zituzten. Lehenengoa prestakuntza fakultatea zen. Hau erdi mailako ikasketak burutzeko zen eta 6-7 urteko iraupena zuen. Honekin arte irakasleen titulua jasotzen zuten. Hau amaitzean ikaskuntzak jarraitzeko aukera zuten beste hiru fakultateetan, teologia, medikuntza edo zuzenbidea zirelarik. Hauek 5-6 urteko iraupena zuten eta doktoretza titulua jasotzen zuten. Metodologia aldetik, espezialitate guztiak antzekoak ziren, irakasleak liburu bat irakurtzen zuen eta ondoren honi buruzko aipamenak egiten zituen.

Laborarien seme-alabek ez zuten unibertsitatera joateko eskubiderik. Hori dela eta haur hauentzat beraiek sortzen zituzten eskolak, zenbait kasutan etxean ere erakutsiz. Idazketa-irakurketa, kalkulua eta ama hizkuntza erakustez zizkieten.

XIV eta XVI mendeetan errenazimentua sortzen da. Garai honetan aurrerapen zientifiko eta teknologiko handiak gertatzen dira, Amerikaren aurkikuntza, Indiarako itsasoko bide berriak eraiki ziren... baina hezkuntzan garrantzirik handiena izan zuen asmakizuna inprenta izan zen.

XVII. mendea ilustrazioaren garaia izan zen. Bertan idazle eta zientifikoak izan ziren eta hauek pedagogiarekin influentzia handia izan zuten, adibidez Descartes, Newton,

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

Galileo Galilei... Huetaz gain Diderot eta D'Alembert entziklopedismoaren aitzindari izan ziren eta honekin eskolen metodologia aldatu zen. Lehenengo aldiz haur hezkuntza agertzen da, helduagoengatik bereizten den etapa berria.

Garai honetan Juan Amos Comenius (1592-1670) eta Raticius- k (1571-1635) ezinbesteko printzipio bezala, gauza bat baino gehiago batera ez erakustea proposatzen dute. Comenius indarraren bidez ikastera behartzen zituzten irakasleen aurka azaldu zen, irakasleak ikasleengan ikasteko interesa piztu behar zuela zioen. Bestetik, haurrek irakurtzen ikasteko metodo berritzaile bat proposatu zuten, modu honetan ikasleak hitzak eta irudiak elkartzean zetzan.

Aurrerago, XVIII. mendean, industri iraultzarekin hezkuntza sistema arautzen hasi ziren. Hauen helburua, etorkizunean fabriketan katean lanean arituko ziren langileak formatzea zen, egun batean ordu askoz behin eta berriz lan berdina egiten arituko ziren langileak. Asmatu zuten eskolak, patroia bera jarraitzen zuen, ikasle guztiek behiz eta berriz ezagutza berdinak errepikatzen zituzten eta erakusten ziren kontzeptuak, industrializaziorako erabilgarriak izango zirenak ziren. (<http://pedagogia.mx/historia/>)

XIX. mendean, Eskola Berriaren mugimendua sortzen hasi zen. Honen helburua hezkuntza berriztatzea eta eskolako arazoei erantzutea zen. "Eskola tradizionalaren zutabeak, hots, irakaslea eta programa, aldatu nahi izan zituen mugimendu orrek, eta horien ordean, hezkuntza prozesu didaktikoari dagokionez, ikaslea ardatz bihurtu." (Hik Hasi, 2005, 14)

Hik Hasi (2005) monografikoan azaltzen den bezala, Eskola Berria errealitate sortua da eta hori dela eta oso praktikoa. Lehenengo eskola, Ingalaterran sortu zen, ondoren Europako toki desberdinetara zabaltzen hasiko zelarik 1880 urtetik aurrera. Tokirik esanguratsuenak Frantzia, Alemania, Belgika, Italia eta Suitza direlarik. Mugimendu hau eskola pribatuetan hasi zen, ondoren publikoetara pasatuko zelarik. Momentu orretako hezkuntza egoerarekin konparatuz, aldaketa handia ekarri zuen, honekin oraindik ere eragina duelarik. Bere helburua jardunbide berria egitea zen. Mugimendu honen barruko egileetako batzuk Key, Claparète, Cousinet, Montessori eta Decroly ditugu.

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

"Mugimendua koordinatzeko, A. Ferrière-ren ekimenez Bureau International des "Écoles Nouvelles" sortu zen Genovan (Suitzan) 1899. urtean eta ondoren, 1921. urtean, Calaisen, "Ligue International pour L'Éducation Nouvelle" antolatu zen. Han eskola berriaren oinarri eta orientazioak jaso ziren. Hezkuntza irizpide horiek oso sendoak eta berritzaileak izan ziren, eta izugarrizko eragina izan zuten (dute) Mendebaldeko hezkuntza sisteman." (Hik Hasi, 2005, 14)

"Eskola Berriaren printzipio pedagogikoak honako hauek ziren:

- Eskola bizitzan bertan kokatu behar da
- Eskolak kontuan hartu behar ditu, nahita ez, haurraren interesak
- Eskolak aktiboa izan behar du
- Eskolak egiazko elkartasun bizimodua ezarri behar du
- Irakaslearen zereginari balio handiagoa eman behar zaio

Horregatik diogu hauxe dela Mendebaldeko Europan eta gurean ere, eragin handien izan duen korrante pedagogikoa, nahiz eta 1921. urtean aldarrikatzen ziren oinarri pedagogikoetako asko lortu gabe dauden gaur egun ere." (Hik Hasi, 2005, 14)

Hezkuntzan aldaketa garrantzitsu asko egon direla ikusi dugu. Aldaketa hauek hezkuntzari aurrera pausu handiak ekarri dizkiote, oso berritzaileak izan direlako eta honela momentuko gizartearen beharrei erantzuna ematen dielako.

Baina gure egunetara saltoa egiten badugu, gure ingurunean gertatutako aldaketa guztiekin, aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin, hezkuntza zaharkitua geratu zaigula konturatzen gara, dagoeneko ez dela erabilgarria eta funtzionala. Produkzio masiboan oinarritutako gizarte industrialetik, zerbitzu eta informazioaren arora pasatu gara, non motorra ideiak eta sormenean oinarrituak dauden. Aurrerapen zikloak ere, geroz eta motzagoak dira, hau da, egungo aurrerapen teknologikoak, ikerketa berriak... abiadura oso azkarra daramate.

Bestetik, Hik Hasi (2005) monografikoan esaten denez, aurrerapen zientifikoek gure garunaren funtzionamendua hobeto ezagutzen lagundu digute eta honekin jakin da, ez dugula ikasten kontzeptuak errepikatuz, baizik eta egiten, hunkitzen garenean.

Eskola berriak izatetik, proiektu berritzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

Europar Kontseilua egoera honen jakitun egonda, neurriak hartzea erabaki zuen 2006. urtean. Konpetentziak sortu zituen eta honekin ikasleek teorian ikasten zutena praktikara pasatzea suposatzen zuen, hau da, ezagutzak egoera errealean aplikatzea. Eusko Jaurlaritzaren (2009) Oinarritzko gaitasunak EAEko Hezkuntza sisteman honela azaltzen da UNESKOK (2005)

"Aurrerapen teknologikoen azkartasunarekin gaitasunek egunerokotasuna galtzen dutenez, komenigarria da eremu guztietan ikasketa mekanismo malguak sustatzea, ezagutza multzo oso zehatz bat ezarri beharrean. Ikasten ikastea esan nahi du hausnartzen, zalantzatzen ikastea, ahalik eta azkarren egokitzen jakitea eta norberaren ondare kultura dudatan jartzen jakitea, adostutakoak errespetatuz. Horiek dira ezagutzaren gizarteek izan behar dituzten ardatzak." (Eusko Jaurlaritza. 2009, 2)

eta A. Perez Gomezek (2007) eransten du:

"Horrela bada, informazioaren eta jakintzaren gizarte honek hezkuntzari eskaera berriak egiten dizkio eta herritarretan bizitza guztian zehar ikasteko ahalmena garatzearekin lotura argia dute. Beste era batera esanda, arazoa ez da ikasleek hartzen duten informazio kopurua, baizik eta kalitatea: ulertzeko, prozesatzeko, hausnartzeko, antolatzeko eta ezagutzan eraldatzeko gaitasuna; eta baita ere egoera eta testuinguru ezberdinetara aplikatzeko gaitasuna, proiektu propio eta sozialen balore eta asmoen arabera." (Eusko Jaurlaritza. 2009, 2)

Eusko Jaurlaritzakoek (2009) konpetentzia, testuinguru jakin bateko ekintza gisa definitzen dute. Eskola amaitu eta lanean hasterakoan, kualifikazio bat eskatzen da, hauek pertsonaren ikasketekin neurtzen direlarik. Ikaskuntza hau askotan testuingurutik kanpo egoten da eta benetako lan-egoeratik urrun. Konpetentziak berriz, teoria hori testuinguru zehatz eta erreal batean aplikatzeko gai izatearen gaitasunekin dago lotua. Teoria praktikan jartzearekin.

Curriculumean konpetentziak sartzearekin batera, aldaketa esanguratsuak gauzatu dira. Eskolaren helburu tradizionalak, lehentasuna eman izan diote gertaerak eta kontzeptuak eskuratzeari. Konpetentziekin berriz, "jakitearen" logikatik abiatu eta

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

"egiten jakitera" pasatu da. "Egiten jakiteko" lehenik "jakin" egin behar da, baina honek metodo tradizionala osatzea ekartzen du, hau da, teoria praktikan jarritz.

Bestetik konpetentzien artean mota desberdinak aurki ditzakegu, hauek oinarrizkoak eta ez-oinarrizkoak dira.

Oinarrizko konpetentziak, bizitzeko funtsezkoak eta ezinbestekoak diren konpetentziak dira. Ikuspuntu berri honek, erantzun egokia eman nahi dio gizarte aldakor honetan sortzen diren arazo desberdinei. Gizartearen aldaketen ondorioz, hezkuntzaren egoera eta testuingurua ere aldatu egin dira:

- Oinarrizko Hezkuntzaren ohiko funtzioak zabaldu egin dira. Eskola tradizionalaren funtzioa ikasleak alfabetatu eta diziplina-arloetan oinarrizko ezagutzak transmititzea zen. Orain, pertsonaren dimentsio fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala eta afektiboa osoki garatzea eta enplegurako prestatzea eta hiritar aktiboa eta arduratsua egitea dira.
- Edukiak eguneratzea.
- Bizi osoko etengabeko hezkuntzarako prestatzea. Hau da, ikasten irastea.
- Ekitatezko eta berdintasunezko eskola inklusiboa lortzea. Ikasle guztiek bizitzeko behar diren oinarrizko konpetentziak eta elkarrekin bizitzeko oinarrizko erreferentzia berdinak eduki ditzaten.

Multzo honek, ikasleek izan behar dituzten oinarrizko konpetentziak osatzen dituzte. Pertsonaren garapenerako dimentsio hauek garatu behar dira.

Alderdi hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Gomendio bateratuak adostutakoa. Beren xedea delarik:

"Hezkuntza eta prestakuntza kalitatezkoak izan daitezen laguntzea, etorkizunerantz bideratua eta europar gizartearen premietara moldatua, eta Estatu kideen ekimenak babestea eta osatzea, hasierako hezkuntza eta prestakuntza-sistemek gazte guztien esku jar ditzaten beharrezko baliabideak, eta beren konpetentzia nagusiak garatu, helduaroko bizitzarako prestatu, eta oinarri bat izan dezaten ikaskuntza osagarriko eta lan-bizitzarako" (Eusko Jaurlaritza, 2009,15)

Konpetentziak oinarritzkoak edo funtsezkoak diren jakiteko irizpidea honakoa da: konpetentzia horrek duen garrantzia bizitzan zehar hezkuntza-helburuak lortzeko. Oinarritzkoa oinarrian dago, ondorengo garapena eraikitzeko izango dena.

"Pertsona guztiek behar dituztenak erlazio eta garapen pertsonalerako, bai eta enplegurako ere. Hasierako hezkuntzaren eta prestakuntzaren ondoren, gazteek helduaroko bizitzarako behar hainbat garatuta eduki behar dituzten funtsezko konpetentziak eta garatzen, mantentzen eta eguneratzen jarraitu, etengabeko ikaskuntzaren barruan" (Eusko Jaurlaritzak, 2009, 16)

DeSeC-en 2002. urteko proposamenean, konpetentzia bat oinarritzkoa izateko, hiru baldintza hauek behar direla esaten du, hauek maila pertsonal edo sozial handiko emaitzak lortzen laguntzea, garrantzizko hainbat testuinguru eta eremutan aplikatu ahal izatea, eta horiei esker exijentzia konplexuak arrakastaz gainditu ahal izatea dira.

Eusko Jaurelaritzak (2009) azaltzen duenez, konpetentzi guztiek honako hiru elementu hauek izan behar dituzte nukleo:

- Izaera integratzailea: konpetentziek hainbat elementu jasotzen dituzte era integratuan. Zerbaitetan konpetentea izateko, era bateratuan eta koordinatuan erabili behar dira kontzeptuzko ezagutza edo jakintza teorikoak, ekintzarako prozedura, arau edo jarraibideak, trebetasunak eta motibaziozko jarrerak, lan bat egin ahal izateko. Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak sarritan zein bere aldetik banatu dira, eta horren aldean aurrerapen handia da irakatsi eta ikasteko prozesuaren edukiak ulertzeko era integratu hori.
- Transferigarriak eta multifuntzionalak: transferigarria da, hainbat egoera edo testuingurutan aplikatu daitezkeena. Multifuntzionala, denetariko problemak ebazteko eta denetariko lan-motak egiteko.
- Ebaluagarria: pertsona batek dituen ahalmenak ez dira ebaluagarriak, baina konpetentziak bai. hau egoera jakin batean egindako ekintzen bidez ebaluatzen da.

Beraz konpetentziak izan dira gure hezkuntza sistemako azken aurrera pausu handia. Honek hezkuntza polibalentea, multifuntzionala, malgua eta globalagoa egiten du.

Azken finean, hori baita etorkizunean herritar kompetente izateko beharko diren baldintzak.

Oraintxe aipatu bezala, urte askotan zehar, erakunde edo mugimendu desberdinek hezkuntzan aldaketa desberdin eta garrantzitsuak egiten zituzten bitartean, munduko txoko desberdinetan, aztarna handia utzi duten pedagogo asko izan ditugu. Hauek eragin handia izan dute beren garaiko hezkuntza sisteman, baina asko eta askoren eragina belaunaldiz- belaunaldi transmititzen joan da, gaur egunera iritsi arte. Hauen adibideen zerrenda oso luzea da, esaterako Kant, I. (1724-1804), Montessori, M. (1870-1952), Decroly, O. (1871-1932), Neill, A. (1883-1973), Freire, F. (1921-1997) daude.

Gaur egun ezagutzen ditugun aditu guztiak, egungoak edo beste mendeetakoak, ideia berritzaileak edo alternatiboak izan dituztelako egin dira ezagun. Beren momentuan zegoen ideologiarekin talka egin dutelako edo ikuspuntu berri bat eman dielako hezkuntzari. Ideologo, aditu, pedagogo, psikologo edo filosofo hauek, hezkuntzaren inguruko ikuspuntu desberdinak erakutsi dizkigute, gaiaren inguruko hausnarketak egiteko proposamena luzatu edo besterik gabe, aukera desberdinak erakutsi.

Ikuspegi hauekin ados egon gaitzke, kontra, oso eraginkorrak iruditu edo ikasleak zapaltzen dituztela sentitu, baina azken finean, guregana iritsi dira arrazoi bat edo bestegatik eta hori buruzko hausnarketa bat egitea aberatsa litzateke, profesionalki hazteko balio dezakeelako.

Hau izango da nire lanaren hurrengo puntuaren oinarri, beren momentuan berritzaileak izan diren adituetan oinarritutako egungo eskolak.

3. ESKOLA ALTERNATIBOAK

Kapitulu honetan ikerketa eremua murriztuko dugu. Historian zehar egon diren hainbat etapa ikertzetik, ikastetxe konkretu batzuk ikertzera pasako gara. Honen arrazoia, alderdi teorikotik praktikora pasatzea izango da. Hau da, ideologia, metodologia edo teknika desberdinen aplikapena ikustea.

Ikastetxe hauek aukeratzeko baldintza izan da guztiak berritzaileak edo alternatiboak izatea. Baina bestetik, berritzaile izatearen arrazoi hau, desberdina izatea nahi genuen. Azkenean lau izan dira aukeratutako ikastetxeak. Lau ikastetxe hauetan, bi sailkapen egingo ditugularik, lehenengo hirurak pedagogoen teorian oinarritzen dira, azkenak berriz, proiektu bidezko metodologia erabiltzen du.

Lehenengo ikastetxea XIX. mendeko ideologia anarkistan oinarritua dago. Kasu zehatz honetan, denborak aurrera egin arren, ideologiak bizirik mantentzen duela egiaztatu nahi izan dugu. Beraz pentsaera hau mantentzen duen Meridako Paideia eskola izan da gure aztergai. Bigarren kasuan, oraindik ere bizirik dagoen psikologo baten ideologiaren aplikapena ikusi nahi izan dugu eta orretarako Argentinan dagoen Colegio Del Sol ikastetxea aukeratu dugu. Hirugarren aztergaia Nafarroan dugun Tximeleta izan da. Eskola hau eklektikotzat hartu dezakegu, bere metodologia prestatzerako garaian aditu desberdinen ideiak uztartzen dituelako. Azkenik, Erentzun ikastola, berezi egiten duen ezaugarria proiektu bidezko metodologia delako aukeratua izan da. Ikastola honetan erabiltzen duten metodologia berritzaileak eta oso aberatsa dela iruditu zaigu, konpetentzien lanketan oinarritzen direlako.

Honekin argi ikus dezakegu, ikastetxe hauek bide desberdinak jorratzen dituztela beren egunerokotasunean, baina hala ere guztiek helmuga berdina dutela, hau ikasleen garapen integrala delarik.

Lau kasuetan, eskolen atal desberdinak aztertuko ditugu. Lehenik, ikastetxearen ideologiaren sortzailearen biografia aztertzeari ekingo diogu. Behin oinarria hartuta, ikastetxearen historia modu laburrean azalduko dugu. Jarraian, honen oinarri teorikoarekin jarraitua izango dena. Ondoren metodologia azalduz, azkenik ebaluaziora iritsi arte.

Eskola berriak izatetik, proiektu berritzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

3.1. Pedagogoen teorietan oinarritutako eskolak 3.1

3.1.1. Paideia escuela libre 3.1.1

Meridan kokatua dagoen Paideia eskola honen ideologiaren sortzailea Francesc Ferrer I Guardia (1859-1909) da eta Ideologo honen teoriak hartzen dituzte beren funtzionamenduaren oinarri, egunerokotasunean.

3.1.1.1. Eskolako ideologiaren sortzailearen biografia 3.1.1.1

FRANCESC FERRER I GUARDIA (1859-1909)

Francesc Ferrer I Guardia 1859ko urtarrilaren 10ean jaio zen Alella-nen (Bartzelonako herri bat) nekazari famili batean. Ferrer i Guardia pedagogo anarkistaren eredu bilakatu zen mundu guztian zehar.

Hurtzaroan apaizekin egoten zen, hauen aldetik zigor eta kolpe asko jaso behar izan zituelarik. Gaztetan Espainiako toki desberdinetan lanean aritu zen nekazari eta tren konpainia batean lan egitearen arrazoia. 1885. urtean Parisera joan behar izan zuen bizitzera, aldaketa honen arrazoia Santa Coloma de Farners-eko matxinadagatik izan zen, non bertan parte hartu zuen. 1889-tik aurrera gaztelerako klaseak ematen hasi zen eta errepublikano progresista partiduko Ruiz Zorrillarentzat sekretario lanak egiten aritzen zen soldatarik gabe. 1890. hamarkada arte ideia errepublikarra izan zituen arren, hortik aurrera anarkismorako bidea egiten hasi zen. [Eskuragarri (2013-05-26) <http://www.logialuxveritatis.org/publics/docFrancescFerrerGuardia.pdf>]

Irene Lope-Goñik (2005) azaltzen dugun bezala, 1891. urtean bere ikasle oi baten, Ernestina Meunier-en, herentzia garrantzitsu bat jaso zuen eta honek 1901an Bartzelonan Eskola Modernoa, arrazionala edo anarkista izenez ere ezaguna, irekitzeko aukera eman zion.

Hik Hasi-n (2005) Lopez-Goñik adierazten duen bezala, pedagogo anarkista honek, bere eskolan bi ardatz nagusi izan nahi zituen. Bata, eskolaren bitartez sozialismo utopikoa zabaldu nahi zuela. Pertsona libreak eraiki, ondoren gizarte aldaketa bat lortu ahal izateko. Horretarako, hezkuntzak gizabanakoarengan, edozein motatako botereren aurkako errebelamendua piztu behar zuela esaten zuen. Horretaz gain, zapalkuntza

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

espiritualaren aurka ere egin zuen, elkarbizitarako gizarte egitura berri bat sortuz. Estatuaren oinarriak, estatua bera eta eliza kendu nahi zituen, eredu errepresiboak ezartzen zituztela adieraziz eta honen ebazpenarekin hezkuntza berria eraiki. Honetaz gain, borondatez egiten ez den guztia ere kendu nahi zuen, esaterako azterketak, ordutegi finkoak... Bakoitzak bere erritmora ikasi behar duela esanez eta hau errespetatuz.

Beste ardatz nagusia, ikaskuntza arrazionala zen. Hau da, ikasten zen guztia oinarri zientifikoetatik eraikia egon behar zuen, dogmatismo edo superstiziorik gabe, mitoen kontra. Zientzia naturalak defendatzen zituen, egiaztagarriak, zientifikoak eta behagarriak direlako. Ikaskuntza prozesuan sortutako arazoak norberak ebatzi behar zituela defendatzen zuen, bakoitzak bere jakintza propioa eraiki zezan. Bestetik, garrantzi handia ematen zion parte-hartzeari eta norbere ikaskuntzak konpartitzeari, horregatik norbaitek zerbait berria ikasten zuenean besteei azaltzen zien, hauek ere ikas zezaten.

1906. urtean, Eskola Modernoko irakasle zen Mateu Morral-ek Espainiako errege erreginei bonba bat bota zien. Ferrer atxilotua izan zen eta urtebetez Madrilgo espetxean egon zen. Gertaera honengatik, Eskola Modernoa eta beste hainbat itxiak izan ziren. Espetxetik ateratzean hau irekitzeko saiakerak egin zituen arren, ez zuen onespenez jaso. Egoera hau ikusirik hezkuntzaren inguruko hainbat liburu idazten jarraitu zuen.

1909. urtean Marokorekin gerra hasi zen eta "aste tragikoa" edo "uztaileko iraultza"-ri hasiera eman zitzaion. Abuztu amaieran Ferrer i Guardia atxilotua izan zen iraultzaren buru izatea leporatuta. Irailaren 13an fusilatu egin zuten Montjuïc-en. [Eskuragarri (2013-05-26) <http://www.logialuxveritatis.org/publics/docFrancescFerrerGuardia.pdf>]

Francesc Ferrer i Guardia 1909. urtean hil arren, gaur egun ere bere ideologia mantentzen duten hainbat eskola daude funtzionamenduan. Hauen artean "La escuela moderna de Ferrer Guardiola" Bartzelonan edo Meridako "Paideia" ditugu besteak beste.

3.1.1.2. Eskolaren historia 3.1.1.2

Eskola hau 1978ko urtarrilean sortu zen Meridan (Badajoz), hiru urteko prestakuntza lanaren ondoren. [Eskuragarri (2013-05-20) <http://www.nodo50.org/tortuga/Escuela-Libre-Paideia-La-pedagogia>].

Eskola alternatibo hau sortzearen inizatiba Concha Castaño Casaseca, M^a Jesús Checa Simó eta Josefa Martín Luengo-rena izan zen. Hauek frankismo garaiko hezkuntza zaharkitua zegoela uste zutelako hartu zuten eskola berria sortzeko proiektua esku artean. Beren esanetan faxismorako, men egiteko eta diskriminaziorako hezten zituzten ikasleak, emakume hauen pentsaerarekin bat ez zetorren modura.

"Eskola librea" deituriko honek 35 urte egin dituen arren, bere ideologia eta xedea berdina izaten jarraitzen du, hasieran zituzten ideologia eta gogoarekin jarraituz. Hala ere urte hauek bost etapa desberdinetan banatu daitezke. Lehen etapa 1978-1981 Bigarren etapa 1982-1990 urte bitarteko da. Hirugarren etapa 1990-1994. Laugarren etapa 1995-1998 eta azkena 1999 tik gaur egun arte, guztiak eskolaren historiari aurrera pausu bat ematen lagundu dielarik. (<http://www.paideiaescuelalibre.org/Historia%20de%20Paideia.htm>).

3.1.1.3. Eskolaren oinarri teorikoa 3.1.1.3

Paideia eskola, Francesc Ferrer i Guàrdiren (1859-1909) ideologia anarkistan oinarrituta dagoela aipatu dut. Eskolak modu autogestionatuan funtzionatzen du, ez du jarraitzen irakaskuntza tradizionalaren ohitura eta forma.

Ikastetxe hau pedagogia libertarioan oinarritzen da. Bere web orrialdean esaten dutenez (<http://www.paideiaescuelalibre.org/Pedagogia%20Libertaria.htm>) hezkuntza ulertzea ohituak gauden moduagandik desberdina da. Hezkuntzarekin ulertzen dugu, gizarte bateko pertsonak, bertako ohitura eta baloreak barneratzea. Hori dela eta, gizarte bat eta bere funtzionamenduaren modeloak hezkuntzaren mende daude iraun ahal izateko.

Baina estatu nagusiek, hainbat estruktura eta botere mantendu nahi dituzte, pentsamendu libertarioak onartzen ez dituenak, esate baterako ez duela pertsonen

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

garapena berdintasunean garatzen uzten eta honek ekonomiko eta politikoki maila desberdinak sortzen dituela. Gizarte batek hezkuntzatik azaltzen du nagusitasun hau, pertsona menpeko, autoritario eta konpetitiboak. Gizarteko injustiziak, zerbait natural bezala barneratzen dituztenak, gizarte insolidario batean murgilduz eta desberdintasunak, biolentzia, liskarrak eta esplotazioa mantentzen dituena. Anarkistek gizartearen aldaketa orokor bat bilatzen dute. Horretarako gizarteko balore asko aldatu behar direla uste dute hezkuntzaren bidez, elkarrenganako euskarria, elkartasuna, askatasuna, berdintasuna, duintasuna eta erresposabilitatea bilatuz. Hau da, zorientasuna eta ongizatea bilatuz pertsonengan.

Pertsona baten heziketan, ez du eskolak bakarrik eragiten, gizarte osoak baizik. Ez dugu adin zehatz batean bakarrik zentratu behar ideia eta balore jakin batzuk barneratzeko, nahiz eta eraginik handiena haurtzaroan izaten duen, oraindik gizarteak, familiak, botereak eta komunikabideak influentzia negatiborik ez dutelako izan. Baizik eta heziketa hau gure bizitza osoan jarraitua izan behar da.

Anarkismoak gizarte justua, solidarioa eta parte-hartzailea sortu nahi du eta horregatik bere ideia pedagogikoak hauekin bat etorri behar dute. Ideia libertarioa mugimendu sozial bati lotua ulertu behar da. Heziketa, sistema kapitalistak sortutako erlazio sozialak eta kulturalak erreproduzitzeko dago. Diziplina eta autoritatean oinarrituak, pertsonak txikitatik ohitu daitezzen pentsatu eta jardutea ezarrita dagoen sistemari komeni zaion bezala. Bestetik, hezkuntza libertarioak neurri handiago edo txikiagoan jarraitzen dituen printzipioak dira:

- Indibiduoaren askatasuna: pertsonen askatasuna, baina kolektiboan. Hau da, besteak kontuan hartuz eta taldean bizitzearen erresposabilitatea hartuz.
- Autoritatearen aurka: inork ez dio inori agintzen, guztia onartutako konpromisoetan eta erabaki kolektibo, ireki eta zintzoan hartutako erabakietan egiten da.
- Norbanakoaren autonomia: dependentzia hierarkiko eta onartuen aurka, norbanako bakoitzak bere eskubide eta eginbeharrak borondatez onartuak

izango ditu. Bakoitzak bere arazoei aurre egiten die, hauetan sinetsiz eta arrazonatuz.

- Jolasa ikasteko bide: jolasaren bidez errazagoa da elkartasuna eta lan kolektiboa, sozializazioa eta ingurune positiboa, alai eta zintzoa garatzea.
- Gizarte eta sexuen koedukazioa: heziketa berdina eta bateratua da, inongo motatako diskriminaziorik gabea sexu edo desberdintasun ekonomikoarengatik. Ideia hauek eguneroko lanarekin poliki-poliki barneratuak izaten dira.

Pertsona libre eta autogestionatua sortzeko, ezinbestekoa da norberak bere erabakiak hartzea, aukeratzea eta interesatzen zaizkion pertsonak ordenarik gabe tratatzea, kontziente izanik hauen mugez. Bakoitzak erabaki behar du zer, nola, noiz eta non landu nahi dituen kontzeptu, ariketa eta jokaera desberdinak, bere heziketarako ezinbestekoak izango direnak.

Auto-didaktismoa garrantzitsua da puntu honetan. Ikasleari ikasi nahi duen horri buruzko informazioa ematen zaio, gainera kooperazio didaktikoa sustatzen da besteei laguntza eskatzean.

Lan kolektibo eta igualitarioen dinamikak sortuz, lan koaderno, liburu eta beste material inpresio edo audiobisualak ikasleen eskura jartzen dira, norberak aukeratu ditzan. Honetaz gain irakasle gehiagoren laguntza izango dute, hauek gai zehatzetan espezializatuak izango direlarik. Bakoitzak erabakitzen du zein diren bere konpromiso didaktiko pertsonalak. Konpromiso hauek ez dituzte elementu intelektualak bakarrik barne hartuko, baizik eta afektuzko eta erlaziozkoak ere bai.

Auto-ebaluazioa behaketarako erregistroak eta heldutasun maila neurtzeko probekin barne eta talde ariketak neurtzen dira, honetaz gain interes, behar eta erlazio intelektualak, afektibo eta sozialak ere neurtzen direlarik. Azterketarik ez da egiten, hauek ebaluatzeko modu zapaltzaile eta kompetitiboa dela uste dutelako. Gainera ikasleen artean hiru eguneroko ekintza banatzen dira, hauek garbitzea, ordenatzea eta

material eta dirua administratzea dira, bakoitzak bere gaitasunen arabera erresposabilitatea izango duelarik.

Asanblea taldeko erabakiak hartzeko marko bihurtzen dute, autoritarismorik gabe eta guztientzat aukerarik hoberena izango dena bilatuz. Bertan hartzen dira konpromisoak eta hauek betetzen diren auto-konprobatzen dute. Bertan zintzoki komunikatzen dira kolektiboko beste pertonekin eta norberaren parte-hartzea, besteekiko erlazioa, norbere kritika eta norbere autoebaluzioa bultzatzen dute.

Zintzoki hitz egiten dute beren zalantza, sentimendu eta proposamen inguruan. Honela asanblea erabakiak hartzeko erreferente bihurtzen da, non erregistro idatzi bat behar duen iritzi eta erabakiak biltzeko. Honetaz gain talde erabakiak hartzeko metodologia argi bat ere behar dute. Asanblea da hezkuntza libertariaren oinarria, bertan sortzen direlako erresposabilitatea, askatasuna eta pertsonen arteko komunikazio librea.

Aurreko lerroetan azaltzen dena da, ikastetxeak bere web orrialdean azaltzen duen bezala, beraiek oinarritzat hartzen duten pedagogia. Honetaz gain, Grupo antilimitarista Tortugak (2008) (<http://www.nodo50.org/tortuga/Escuela-Libre-Paideia-La-pedagogia>) ikastetxeari egindako elkarrizketa batean, ikastetxeak ikasleak aukeratzeko garaian erabiltzen duten irizpidearen inguruan galdetzen die eta ikastetxeko E.L.P-k erantzuten du, ikasleek hainbat baldintza bete behar dituztela, hauen artean ezin dutela eskolaz kanpoko ekintzetara joan, hau klase berdintasunen aurka joatea izango litzatekeelako. Gainera lehiakortasuna, autoritarismoa eta biolentzia sustatzen dituztela adierazten du. Bestetik, eskola honetako ikasleek formakuntza erlijiosoa jasotzea ere debekatua dutela adierazten du, eskola atea delako eta bertako printzipioen aurka doalako.

3.1.1.4. Metodologia 3.1.1.4

Ikastetxe honetako metodologia ez da autoritarioa, eskolak, ikasleak ikasten ikastea eta hauen garapen pertsonal eta intelektualak garatu nahi ditu. Ikaskuntza

pertsonalizatua da eta ikasle bakoitzak bere beharrak eta interesak asetzea ditu helburu, bai indibidualki eta baita kolektiboki ere.

Ikastetxe honetan, ikasteak ikertzen ikastea nahi dute, ikasteko modurik hoberena "egiten" dela uste dutelako, esperientziatik abiatuta. Horregatik kuriositatea bilatzen dute.

Asanbleatan landuko dituzten tailerrak erabakitzen dira eta ondoren bakoitzak bere interesen arabera hauetatik landuko duena aukeratzen du. Ikaskuntza modu ez memoristikoa gauzatzen da, estrategia desberdinak erabiliz. Ikaskuntza auto-reglatzailea martxan jarritz.

Ikerketa hau egiteko modu besberdinak dituzte, hauetako bat jolasen bidezkoa delarik. Jolas hauek, jokoak izan arren helburu "oso serioak" dituztela adierazten dute, beren diziplina, arauak eta exijentziak dituztelarik. Hauek desafio bihurtzen dira, azkenean beren emaitzetara iritsi ahal izateko.

Erabiltzen duten metodologiaren funtsa parte-hartzailea eta kritikoa da, konpetentzia desberdinak garatuz eta hauen artean pentsaera, hausnarketa eta arrazonamendu desberdinak garatuz.

Irakasleek ikasle bakoitzaren helmuga lortzeko behar duten laguntza eskainiko die hipotesiak garatzen, esperimenduekin, probekin eta egiaztapenekin lagunduz. Lortu nahi den emaitzara iritsi ahal izateko.

Landuko dituzten kontzeptu desberdinak ikasle bakoitzaren interes eta gaitasunen arabera aukeratuak izango dira.

3.1.1.5. Ebaluazioa 3.1.1.5

Ikastetxearen ebaluazioari dagokionez, beren web orrialdean jartzen du (<http://www.paideiaescuelalibre.org/>) ez direla azterketak egiten eta ez dagoela notarik. Honek konpetitibaterik ez egotea ekartzen duelako, gainera ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatzen dute. Irakasleek konpromiso denboraren ondoren zerbait berria ikasten dutenean, besteen aurrean aurkezten dute, besteek ere ikas dezaten edo interes berriak pizteko.

Auto-ebaluazioa, behaketarako erregistroak eta heldutasun maila neurtzeko probekin barne eta talde ariketak neurtzen dira, honetaz gain interes, behar eta erlazio intelektuala, afektibo eta sozialak ere neurtzen direlarik.

3.1.2. Colegio del sol 3.1.2

Colegio Del Sol Argentinan kokatzen den eta Howard Gardner-en teoriak aplikatzen dituen eskola dugu hau. Jarraian eskola honek ezaugarriak aztertzeari ekingo diogu.

3.1.2.1. Eskolako ideologiaren sortzailearen biografia 3.1.2.1

HOWARD GARDNER

Howard Gardner 1943ko ekainaren 11 jaio zen Scranton-en, Pensilvaniaren ipar aldean. (<http://howardgardnerd.wikispaces.com/file/view/Howard+Gardner+Biograf%C3%ADa.pdf>) Txikitatik ikasle bikaina izan zen eta etorkizun handiko piano jolea, baina ikasketa hauek nerabezaroaren hasieran utzi zituen, nahiz eta musikak garrantzi handia izaten jarraitu bere bizitzan. Scrantoneko eskolara joan zen, baina bere benetako formakuntza Harvard Unibertsitatean hasi zen 1961. urtean. Bertan filosofia, soziologia eta medikuntza ikasi zituen.

Hik Hasi-n (2005) Maria Luisa Sanz de Acedok azaltzen digun bezala, Gardner gaur egun hezkuntzako irakaslea da Harvard Unibertsitatean, neurologiako Boston-en eta Harvard Unibertsitateko Proiekt Zero izeneko proiektuaren zuzendariondokoa da. Psikologo honek 500 artikulutik gora idatzi ditu eta 26 liburu, hauen artean, *Flames of mind* (1983), *Creating minds* (1993), *Multiples Inteligences* (1993b), *Intelligence reframed: multiple intelligences for the 21st century* (1999) edo *Truth, beauty and goodness reframed : Educating for the Virtues in the Age of Truthiness and Twitter* (2011) ondoren Principe de Asturias saria jasoko zuena.

Gardnerren ikerketa zientifikoak giza adimenaren jatorriari buruzko azalpen berriak egitea, adimen anitzen teoria hezkuntza sisteman ezartzeko estrategiak bilatzea, gaitasun kognitibo desberdinen garapenera zuzendutako programak sortzea, burmuineko kaleak eta hizkuntz aldaerak ikertzea eta lan munduan adimen anizkuneak duten garrantzia aztertzea izan da Sanz de Acebok (2005) adierazten digun bezala.

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

Hala ere Gardnerren ikerketarik ezagunena zortzi adimenena da. Hauetako zazpi 1993. urtean argitaratu zituen eta zortzigarrena 1998. urtean. Oraindik zortzigarren gaitasuna ezagutu aurretik, honela adierazten du gaitasuna: "una inteligencia implica la habilidad necesaria para resolver problemas o para elaborar productos que son de importancia en el contexto cultural o en una comunidad determinada". (Gardner, H.,1995, 32)

Hauek dira Gardnerren zortzi adimenak:

- "Adimen linguistikoa: hizkuntza, ahoz nahiz idatziz ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna.
- Adimen logiko-matematikoa: hipotesiak kalkulatzeko, formulatzeko eta egiaztatzeko gaitasuna, bai eta metodo zientifikoa eta arrazoitze induktiboa eta deduktiboak erabiltzeko gaitasuna ere.
- Adimen espaziala: buruan irudiak sortzeko, espazio jakin batean moldatzeko, gauzak irudikatzen eta abarretarako gaitasuna.
- Adimen zinetiko-korporala: indarra, askatasuna, malgutasuna, koordinazioa eta oreka izatea eskatzen duten jarduerak egiteko gaitasuna.
- Adimen musikala: musika entzuteko, abesteko eta musika-tresnak jotzeko gaitasuna da.
- Adimen intrapertsonala: gure burua ulertzeko gai egiten gaituen gaitasuna.
- Adimen interpertsonala: gainerako pertsonak ulertzen laguntzen digun adimena. Beste aditu batzuk intrapertsonalarekin batera gaitasun emozionala deitzen die.
- Adimen naturalista: espazioen artean dagoen loturari antzemateko, eta haien artean antzekotasunak eta desberdintasunak nabaritzeko gaitasuna da." (Lakar, O., 2001, 40)

"Adimen bakoitza moldagarriak dela, eta beraz, irakats daitekeela; gizakia adimen guztiekin jaiotzen dela eta familia, eskola eta gizarte inguruneak bideratuko duela adimen horien egituraketa berezia gizaki bakoitzarengan; batzuk gehiago garatuko direla, beste batzuk gutxiago eta beste batzuk batere ez, eta hezitzaileek ikasleen adimen potentziala hobetu dezaketela". (Hik Hasi, 2005, 121)

Gardner-ek bere teoriak ez zuen hezkuntzara zuzentzeko asmoarekin egin, baina hainbat hezitzaile hauen interesak piztu zitzaizkien eta honek eskolen kalitatearen hobekuntza ekarri du.

Momentu honetan Gardnerren teorietan oinarritutako eskola asko aurki ditzakegu mundu guztian zehar. Hauetariko adibide batzuk honakoak dira: Colegio de Montserrat Bartzelonan, Halladle ikastetxea Bilbon, Colegio Alcaste Logroñon, Colegio Orvalle Madrilan edo Argentinako Colegio Del Sol besteak beste.

3.1.2.2. Eskolaren historia 3.1.2.2

Colegio Del Sol, San Carlos de Bariloche (Argentina) hirian kokatua dagoen eskola da. 1981. urtean sortu zen Jardín Del Sol izenarekin. Proiektu honen hasieran proiektu argi, proposamen berriztagarri eta helburu erakargarriak zituelarik.

1994. urtean, Mariana Laconich de Dedyn eta Juan Dedyn-ek "Colegio del Sol" izeneko sortzen zuten, jarraipena emateko "Jardín de Sol"-en hasitako proiektuari. 2001. urtean fundazio izatera pasako zelarik.

3.1.2.3. Eskolaren oinarri teorikoa 3.1.2.3

Arestian ikusi dugun bezala, eskola hau Howard Gardner-en inteligentzia anitzetan oinarritzen da beren hezkuntza proposamena egiterako garaian. Ikuspegi integratua du, bakoitzak bere gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izateko.

Gabriela Fernandez-ek (http://www.colegiodelsol.org/quienes_somos1.php) adierazten du, Gardnerren inteligentzia anitzek, ikaskuntza estilo desberdinak hobe ezagutzen laguntzen digutela, honela ezagutzarako bidea erraztuz.

Gardnerren esanetan, teoriaren esentzia, jendearen artean dauden desberdintasunak errespetatzean, ikasteko modu desberdinetan, ebaluatzeko modu desberdinetan eta hauek munduan utzi dezaketen modu desberdinetako aztarna zenbatezinetan datzala, beraz hau da eskola honetan kontuan hartu eta baloratzen dutena. Ikaslearen ezaugarri desberdinak, hauen ikasteko modu desberdinak errespetatzen dituzte, ondoren modu desberdinetara baloratzen dituztelarik.

Ikastetxeak Gardnerren inteligentzia anitzak hartzen ditu beren eguneroko ariketen oinarri, hau dela uste dutelako ikasleak beren garapen integrala lortzeko modurik egokiena. Honetarako ikaskuntza pertsonalizatua eskaintzen dute inteligentzia anitzetan oinarritua. Honetaz gaiz baloreen garapenerako eta jokaera positiboetarako proiektuak ere garatu dituzte.

Garrantzi handia ematen die, momenturo ikasleak jakitea zer ari diren lantzen eta zertarako balio dien, honela ikasleentzat zentzua izan dezan, gainera eskolan planteatzen diren "arazoak" eguneroko bizitzarekin antzekotasuna izaten saiatzen dira, ikasleentzat esanguratsua izan dadin.

3.1.2.4. Metodologia 3.1.2.4

Ikastetxe honetan gai desberdinak modu independentean lantzen dituzte (http://www.colegiodelsol.org/proyecto_educativo1.php). Hona hemen lantzen dituzten gai batzuen azterketa:

- Irakurketa: liburutegi bat dute ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko eta honela irakurle onak bihurtu daitezzen, eguneroko errutina bihurtuz eta irakurketaz gozatuz. Astean behin liburutegira joaten dira irakurtzera eta ondoren bakoitzak irakurritakoari buruzko iritzia ematen du.

Hilean behin irakurketaren festa egiten dute. Bertan eskola orduetatik kanpo ikasleak burkoa eta manta eramaten dituzte eta amona batek kontatutako ipuinak entzuten egoten dira.

Honetaz gain, urtero ikasleek ipuinak egiten dituzte, ondoren beren hirian hauek "exposicion de libros de autores infantiles" izeneko erakusketan erakusteko.

- Artea: Roxana, plastikako irakasleak adierazten duen bezala, ikasleak plastikarako teknika desberdinak erabiltzen dituzte beren garapen psikomotrizaren arabera. Marrazkiak, pinturak, collageak, modelatua eta hiru dimentsiotako obrak egiten dituzte. Hauek egiteko materialak desberdinak erabiltzen dituzte, tenperak, akuarelak, arkatzak, buztina, plastilina, tinta... Beren lanez gain, urtean zehar artista desberdinen mota desberdinetako obrak ere ikertzen dituzte.

Arteko klase hauetan, musika entzuteko aukera dute eta ikasleek egindako idatziak erabili ditzakete, lantzen ari diren proiektuarekin bat etortzen direnean.

Klase hauetan ikasleak praktikan jartzen dituzte gaitasun eta jokaera desberdinak, ikasleen garapen integralean laguntzen dutenak.

Urtero 1995. urtetik hasita, ikasleek gabonetako txartelak egiten dituzte ondoren hauek saltzeko. Bertan biltzen duten dirua, ikasleek aukeratutako on publikoko entitate bati ematen die. Ariketa honek helburu komunitarioa du eta gabonetako sentimendua berreskuratzeko helburua du, lan solidario honi esker.

- Informatika: Hector Massa, informatikako irakasleak adierazten du, informatika gizartea hartzen ari den garrantzia dela eta, garrantzi handia duela gai honek eskolan. Informatikaz hitz egitea, gai liluragarri batez aritzea dela uste dute, etorkizunean amestea eragiten digulako eta garapen indibidualerako ematen dituen aukerengatik eskolako ikaskuntzaren bidez. Informatikaz hitz egitea, hezkuntzaz hitz egitea dela esaten du. Heztea "egiteko" modu bat dela, oraina eta etorkizuna.

Informatikarekin lortu nahi duten helburua ordenagailua eskolan erabiltzea da, xede pedagogikoarekin, "jakiteari" eta "egiten jakiteari" orientatua eta

hezkuntzaren hobekuntza lortzeko asmoarekin. Hezkuntzak utzi behar diolako norbanakoari teknologia berriak erabiliz, inguratzen duen mundua ulertzen eta gizartera egokitzen.

Orregatik, informatika ez da erabiltzen ezagutza espezifiko bezala, baizik eta ikasleei ikuspuntu desberdin bat emateko.

- Bizitza naturan: gai hau ingelesez lantzen dute eta bertan irakasten dena da, naturaz gozatzea, gizakiaren arrastorik utzi gabe. Mendira irteerak egiten dituzte, eta bertan lehendik zeuden bideak erabiltzen dituzte, ez dute zaborrik uzten, ez dute ezer eramaten. Kanpaldiak egiten dituztenean, lekurik aproposenak erabiltzen dituzte eta ahalik eta gutxien zikintzen saiatzen dira. Guzti hau lehenengo gelan lantzen dute eta ondoren ikasitakoa praktikan jartzeko mendira joaten dira. Gainera stickers eta posterrak egiten dituzte eta ondoren hauek mendiko aterpetxeetan jartzen dituzte. Ondoren enpresa eta mendiko gien laguntzarekin mendiko ibilaldiaren inguruko aurkezpena egiten dute diapositibez lagundua.
- Ingelesa: astean 15 ordu eskaintzen dizkie ingelesari. 12:30tatik 16:30tara eskolan ingelesez hitz egiten dute HH-ko ikasleetatik hasita. Ikasleek hizkuntza modu globalean bizitu behar dute, komunikazioaren lau gaitasunak praktikan jarri beharko dituztelarik: hitz egin, entzun, idatzi eta irakurri. Trebetasun hauen gauzatzeko ariketa mota desberdinak egiten dituzte, irakurketarenak, pelikulak ikusi... ondoren hauen zatiak aztertuko dituztelarik. Erabiltzen dituzten baliabideak ere anitzak dira: jolas didaktikoak, aldizkariak, liburuxkak, egunerokoak, soft hezitzaileak, ordenagailuak...

Hasieran ikasleak James Ashen-en teoriar oinarritutako (TPR) Total Physical Response izeneko metodologian oinarritzen dira. Honek esaten du, ikasleak orden berbalei erantzuteko gai direla hitz egiten hasi aurretik. Honela ikasleak motibazioa sentitzen du eta honek ikaslearengan ulermen hobea eta gaitasun berbal hobea izatea ekartzen du, metodo tradizionalarekin konparatuz. Lehenengo etapa honetan, garrantzi handia ematen zaio ahozko ekoizpenari, hizkuntzaren barneratze egokiena lortzeko. Bigarren etapan berriz, ikasitakoa sendotzeko baliabideak ematen zaizkie. Hizkuntza ikasteko baliabide bezala erabiltzen dute eta zientziak, historia, geografia... ikasteko erabiltzen dute.

Honetaz gain, beste hainbat ekintza ere egiten dira hizkuntza honetan, eskia, kanpamentuak, antzerkia, artea... egiten dituzte. Honela hizkuntzaren erabilera eskolako eremutik kanpo ere erabiliz.

Geletan tailer desberdinak dituzte, esaterako puppetry, games, video, drama, literature, story telling... guztietan ideia konkretuak garatuz irakasleen laguntzarekin.

Zailtasunak dituzte ikasleentzat, neurrira eginiko programaketak ere badituzte. Beste ikasleen mailara heldu eta hauekin txertatzeko, betiere jarraipen berezi bat izango dutelarik.

Ingelesa lantzeko ezaugarri nagusia da, jolasen bidez ikasten dutela, dinamika dibertigarri eta zirrarratsuan. Enfasia komunikazioari ezartzen zaio modu natural eta kooperatiboan. Gaztelera lantzen duten bezala, hemen ere gaitasun anitzeko zentroekin elkarlanean aritzen dira, ikastetxe honentzat pertsonaren garapena oinarri delarik.

- Hauetaz gain, baloreak, autoestima, bakea... garatzeko hainbat proiektu garatzen dituzte inteligentzia anitzetan oinarrituak. Honetarako ikasleen arteko lotura positiboak sustatzen dituzte, lan kooperatiboan laguntzen dute eta graduen artean proiektu komunak egiten dituzte.

Ikastetxe honetako adituek adierazten dute baloreak aukera duten oro landu behar direla, kartelak egitea, sarreran bandera jartzea, hausnarketa positiboekin ikuskizunak egitea, eskolako ekintza desberdinak planifikatzea ikasleen ikuspuntutik...

Espiritu kritikoa lantzeko beste alderdi bat errendimendu akademikoaren eta norbere jokaeraren inguruko autoebaluazioa egitea da. Ikasleek momentu hau asko baloratzen dute, beren iritzia kontutan hartzen direlako.

Bestetik, ikasleek baloreei buruzko hausnarketa egiteko txokoa izaten dute.

Ikaskuntza prozesu guztian ez dira metodo behartuak edo isekarik erabiliko, Susan Kovalik esaten duenez, ikaskuntza isekarik gabeko ingurunean gauzatzen omen da eta.

Baloreen inguruko lan hau solidatzeko, inteligentzia emozionalaren inguruko hausnarketa egiten dute aldioro. Norbere ezagutzatik eta emozioetatik hasi behar da, hausnarketak, gauzei aurre hartu eta maneiatu ahal izateko, jokatu

eta erlazionatzeko mundu guztian zehar. Beren emozioen kontrola izango dute, besteenak ezagutu, honek erlazio interperetsonalak maneiatzeko bidea emango dielarik.

3.1.2.5. Ebaluazioa 3.1.2.5

Ikasgai bakoitzak bere ebaluazioa du eta beraz bere irizpideak. Hona hemen adibide moduan ingelesaren ebaluazioaren azalpena:

- Ingelesa: Laugarren mailatik aurrera azterketa internazionalak egiten hasten dira. Hauen helburu nagusia azterketak egiteko esperientzia garatzea da. Azterketa mota desberdinak aukeratzen dituzte ikaslearen ezaugarri eta beharren arabera. Hala ere azterketa hauek hautazkoak izango dira eta ados dauden gurasoen seme alabak bakarrik aurkeztuko dira. Urtearen amaieran, ikasle guztiek azterketa idatzi eta ahozko bat egin beharko dute. Azterketa idatziek hauen adierazpen eta ulermenerako kompetentziak neurtuko dituzte. Ahozko azterketak dramatizazio eta role playak izango dira eta hauetan ahoz komunikatzeko gaitasuna neurtuko da.

Kurtsoan osoan zehar autoebaluazio asko egiten dituzte, bakoitzak bere garapena eta beharrak identifikatu ditzan. Honela ikasleak bere ezagutzen inguruko hausnarketa egiteko aukera izango du, bere ikaskuntza prozesuaren bilakaera ikusi ahal izango duelarik.

Bestetik, nahiz eta azterketa gutxi batzuk egon, ebaluatzeko gelako ariketa desberdinak ere egongo dira, honek ikaslearen garapen prozesua zehatzago adieraziko duelarik.

3.1.3. Tximeleta eskola 3.1.3

Tximeleta eskola Tajonar herrian kokatua dago. Ikastetxe eklektiko bezala sailkatu dezakegu hau, beren pedagogiaren oinarrian pedagogo bat baino gehiagoren teoriak hartzen dituztelako, ondoren hauekin berea sortzeko. Pedagogo hauen zerrenda nahiko luzea den arren, azterketa honetan bi garrantzitsuenen biografia aztertuko da,

beti ere, besteek duten garrantzia gutxietsi gabe. Bi pedagogo hauek Neill eta Steiner direlarik.

3.1.3.1. Eskolako ideologiaren sortzaileen biografiak 3.1.3.1

ALEXANDER SUTHERLAND NEILL

Neill 1883. urtean jaio zen Eskoziako Forfar herrixkan. Bere aita irakaslea zen eta haurrak ez zituenez maite eta orregatik Neill askotan zigortzen omen zuen. Honek bere pentsaeran eragina izango zuen. 14 urterekin Edinborgora joan zen eta bertan bulegari baten laguntzaile bezala aritu zen lanean, etxekoen ustez ikasteko gaitasunik ez zuelako. 25 urte zituela, Edinburgoko unibertsitatean kimika eta filosofia naturala ikasten hasi zen, baina urtebeterako ikasketa hauek alboratu eta ingelesa eta historia ikasten hasi zen. Kazetaritza lanak egin ere egin zituen eta ondoren Eskoziako herrixka bateko eskolan zuzendari bezala aritu zen lanean. Honetaz gain, heziketaren inguruko gaien inguruan idazten hasi zen [Eskuragai (2013-05-31) <http://www.ibe.unesco.org/publications/ThinkersPdf/neills.PDF>].

Asie Huegun-ek (2005) adierazten duen bezala, 1921. urtean Summerhill eskola barnetegia sortu zuen Ingalaterran. Bost eta hamabost urte bitarteko ikasleak hartzen zituelarik. Eskola honetan bere hezkuntza ikuspegia praktikan jartzeko aukera izan zuen eta oso ospetsua bilakatu zen Ingalaterran 30. hamarkadan.

Neillen ustez bizitzaren helburua zoriontsu izatea zen. Beraz hau izango zen beste printzipioen abiapuntu. Bestetik, askatasunean eta autorregulazioan oinarritutako hezkuntza jarduera gauzatu zuen, Summerhill-go eskolaren bi zutabe nagusi bihurtuko zirelarik.

"Neillen ustez haurren helburu existentziala bere bizitza propioa zuzentzea eta bideratzea da... haurrak nahi duena egin dezake, baina bere ondokoa mindu gabe. Hori dela eta, haurrak aukeratu egingo du eskoletara joan edo ez. Summerhillen ohiko eskolak emango dira, baina haurrak hautatuko du joan edo jolasean gelditu. Jolasen hautaketak garrantzi handia edukiko du Summerhillen, hautatzeko askatasun horrek ahalbidetuko baitu autorregulazioa". (Hik Hasi, 2005,32)

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

Jolasak garrantzi handia du zeren eskola honetan, Neillen ustez haurrak lanean hasteko eta bere arazoez arduratzeko modu bakarra, hauek nahikoa jolasten duenean bakarrik baita.

Hala ere, eskola honetan zigorrak egoten ziren:

"Summerhillen zigorrak egongo dira. Hauek norbanakoaren edo komunitatearen aurka zerbait egin direnean jartzen dira, baina beti ideia moralak daramate berekin... zigorra ez da ezarriko mina eragiteko, erreparazio moralaren ideia ulertzeko eta bereganatzeko baizik." (Hik Hasi, 2005,33)

Oinarri teorikoari dagokionez, beharrezkoa da teoria eta praktika uztartzea, bata bestea zehazten duelako. Hau gauzatu ahal izateko, garrantzi handia hartzen dute asteroko haurren Asanbladek. Asanblada hauetan, ikasle, irakasle eta eskolako langile guztiek parte-hartuko dute. Bertan hauek dituzten arazoak kontatuko dituzte, erabakiak hartuko dira eta hauek botoen bidez erabaki behar direnean, guztienak balio berdina izango dute, "modu horretan, haurrak demokraziaren eta justiziaren espirituz blaitzen dira: taldean erabaki eta gero ezartzen dira zigorrak, arau haustearekin lotura zuzena edukiko dute eta ideia moralak edukiko dute bere baitan" (Hik Hasi, 2005,33)

Neill bere bizitzaren azken egunetara arte Summerhill eskolan egon ostean 1973ko irailaren 22an hil zen Alderburg herrian, Eskozian 89 urte zituela. Bera hiltzean bere emaztea izan zen eskolaren martxa hartu zuena, 1985. urtetik aurrera bere alaba izan zelarik eskolaren arduraduna.

Ezaugarri berezi hauengatik, Neillek sortutako Summerhill eskola demokratikoa eskola berritzaileen multzoan sartu dezakegu. Bestetik, munduan zehar Neillen pentsaera oinarri hartu duten beste zenbait ikastetxe ere badaude, esaterako Alemanian dagoen Lehen Hezkuntzako Frankfurteko eskola eta Stuttgarteko Kinderlande-n eskola besteak beste.

RUDOLF STEINER

Filosofo, literario, artista antzerki egile hau 1861. urtea jaio zen Kraljevic-en (Austro-Hungaria). 1872. urtean Wiener-Neustadt-eko eskola teknikoan gauzatu zituen bere ikasketak, 1879. urtean amaitu zituelarik. Urte orretan bertan Vienako goi mailako eskola teknikoan sartzen da eta bertan matematika, zientzia naturalak, literatura, filosofia eta historiako ikasketak burutuko ditu aldi berean. [Eskuragarri (2013-05-12) <http://www.fundsteiner.com/rudolf-steiner.html>]

1884 tik 1890. urtera bitarte, irakasle pribatu bezala aritu zen lanean. Bitartean Goethe-nen lau bolumenak idatzi zituen. Honi jarraikiz beste hainbat artikulu eta liburu ere idatzi zituelarik.

1919ko apirilean, Steiner-ek Alemaniako Stuttgart herriko Waldorf Astoria zigarro fabrika batera joan zen hitzaldi bat ematera. Momentu orretan, lehenengo mundu gerraren amaierarekin Alemania suntsituta zegoenez, orduan Steiner-ek berrikuntza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoaren beharren inguruan hitz egin zuen. Orduan Emil Molt, fabrikako nagusiak, bertako langileen haurrentzat eskola bat sortzeko eskatu zion eta Steiner-ek proposamena onartu zuen, bost baldintzekin, hauek dira: eskola hau haur guztientzat irekia egon behar zuen, bi sexuentzat izan behar zuen, 12. mailara arte egon behar zutela, irakasleek eskolako pedagogiarekin ados egon behar zutela eta estatuaren aldetik ahalik eta eragin gutxien izan behar zuela. [Eskuragarri (2013-05-12) <http://eltrigal.org/pedagogia-waldorf.htm>]

1919ko irailean eskola ireki zen eta mugimendu hau Alemania eta beste estatuetan zehar zabaldu zen. 30. hamarkadan Nazien erregimenak eskola hauek itxiarazi zituzten. Hala ere, bigarren mundu gerra amaitzean, berriz ireki ziren eta mundu guztian zehar zabaldu ziren.

Ezaugarri hauek zituen eskola hauek:

(0-6 urte bitartean)

Adin tarte honetan haurren ikaskuntza kopiaketan oinarritzen dela esaten du, beraz helduak kopiatzeko eredu positibo asko eskaini behar dizkio eta jolas sortzailerako aukerak eman behar dizkio. Steinerrek dio 6 urte baino lehen eskakizun intelektuala Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

egiten bada, haurrak etorkizunean funtzio hau ahuldua izango duela. Hori kontutan hartuta, adin tarte honetan egiten zituzten ekintzak zeren: sukaldarietara jolastu, mozorroto, gurasoetara jolastu, errege edo mago bihurtu, margotu, abestu... Poesi eta abestien bidez hizkuntza ikasten dute, elkarrekin jolasten ikasten dute, ipuinak entzuten dituzte, ogia egiten dute... Steiner-en ustez ekintza hauek dira bizitzarako prestakuntzarik hoberena, honela kontzentrazio gaitasuna, interesa eta ikasteko gogoia sortzen baitira.

(7-13 urte bitarte)

Etapa honetan ikasleak guztia bigarren aldiz deskubritzeko gogo betez egoten dira. Aurreko etapan mundua imitatzen zuten, baina orain mundua imajinazioaren bidez ezagutzeko prest daude.

Irakasleen zeregina da, ikaslearen beharrak ezagutu eta asetzea bere eginkizuna bete dezan. Imajinazioaren ikuspuntutik ikusita, natura, matematikak, geometria eta ekintza praktikoak beharrezkoak dira ikaslearen garapenerako. Adibidez, matematikako lau ariketa mota antzerki baten bidez ikasi ditzakete.

Steiner-en ustez, imajinazio eta sentimendu positiboekin ikasitakoa hobea barneratzen da eta denbora gehiagoan gogoratzen da. Bestetik, etapa hau dela uste du hoberena inteligentzia sentitiboa garatzeko.

Nerabezaroa izaten da imajinaziotik arrazionaltasunera eta abstrakzio intelektualera ematen den pausoa.

(14-21 urte bitartean)

Etapa honetan ere ikasleak mundua deskubritu nahiko du, baina beste modu batean. Pertsona heldutasunera iristen ari da haurtzaroaren etapa atzean utzita. Steiner-en arabera, nerabea ez da herentzia edo ingurunearen ondorio, baizik eta bere espirituaren adierazpena. Heldutasuna 21 urte ingururekin iristen delarik.

Ikasgelan

Eguna bi orduko klasearekin hasten zen, gai bakarra landuko zelarrik. Aste batzuetan zehar gai nagusi bat bakarrik lantzen zuten, honela ikaslea gai bakar batean Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

kontzentratua egotea ahalbidetzen zuen. Gai hori amaitzean, beste aste batzuetan zehar beste gai batekin hasten ziren, ondoren lehendik ikasitakora bueltatuz. Honela ikasitakoak atsedenaldira hartzen zuen ezagutzak ongi finkatu zitezkeen. Lehenengo bi ordu horietan, mugimenduzko ekintzak egiten ziren zirkulazioa aktibatuz, taldea bateratzeko eta kontzentrazioa aktibatuz.

Behin ikasgai nagusia landutakoan, materia bereziak lantzen ziren: hizkuntza, musika, pintura, eskulanak, baratza... Hala ere, ikasgai hauek ikasgai nagusiarekin uztartzen saiatzen ziren. Nahiz eta ikasgai nagusi bezala lehenengo bi orduak hartu, besteek ere garrantzi bera zuten.

Eskola hauetan ikasleak beren lehen urteetatik amaierara arte irakasle berdina izango zuten. Honek irakasleak bere ikasleak sakontasunez ezagutzen laguntzen zien eta hauekin batera garatzen.

Rudolf Steiner-ek hezkuntzaren inguruko ekarpen garrantzitsuak egin ondoren 1925. urtean hil zen Dornach-en (Suitza). [Eskuragarri (2013-05-12) <http://eltrigal.org/pedagogia-waldorf.htm>]

Orain dela 88 urte hil bazen ere, bere ideologia mantentzen duten eskolak ere oraindik bizirik jarraitze dute, adibidez Cordobako El Trigal eskola.

3.1.3.2. Eskolaren historia 3.1.3.2

Tximeleta eskola 2002. urtean sortu zen eskola alternatiboa da. Hau familiek sustatu, antolatu eta gestionatzen dute [Eskuragarri (2013-06-01) <http://www.tximeleta.org/>]. Iniziatiba honen ideia hainbat guraso hezkuntza proposamenak eskaintzen zuenarekin ados ez zeudelako sortu zen. Zeuden eskoletako inork haurraren ezinbesteko beharreganako apustu erradikalik ez dutela egiten uste dute. Honetaz gain, hezkuntza ez dela ikaslearen beharretara moldatzen eta ikasleak beren kuriositatekin ez direla abiatzen gauza berriak ikasterako garaian adierazten dute. Eskola ez dela toki estimulatzailea eta beren beharrak errespetatzen dituen, haurrak protagonista diren tokia. Eskola konbentzionaletan haurra dela eskolara moldatu behar dena, lehendik ezarriak dauden programetara, hauek edozein motatakoak izanda ere.

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

Hau kontuan izanik, eskola alternatibo hau guztien artean ikasi eta errealitate berriak ezagutzeko esperientzia kolektibo bezala ikusten dute. Hezkuntza modu desberdin batean aurre egiteko erronka bezala ere ikusten dute. 10 urte hauetan talde bezala irakasle eta ikasleekin batera, eboluzionatu eta heltzen joan da ikasteko espazio eta bizikidetzari dagokionez, eta ikasleei eta helduei dagokionez, modu desberdin eta bakarrean ikasi eta hazteko aukera izan dutela adierazten dute, bai pertsonalki eta baita modu kolektiboan ere.

3.1.3.3. Eskolaren oinarri teorikoa 3.1.3.3

Ideologiari dagokionez, hainbat eskola libretatik hartutako eredua da. Beren erreferentzia nagusia Summerhill, Pesta eredua, Steiner, Wild senar-emazteak, Ekuador edo Hezkuntza Demokratikoaren mugimenduak direla adierazten dute.

Ikasleak libreki adierazi daitezken modelo bat proposatzen dute (margotu, dantza egin, mozorrotu...) lokatzarekin, buztinarekin, oinutsik ibili... eta esperimendatzeko aukera duten toki bat dela. Adin desberdinetako ikasleak elkarrekin egon daitezten toki bat, bata besteagandik ikasiz (handienak txikienen eredu dira, hazteko nahia, gauza konplexuagoak egiteko handia izateko gogoia transmititzen diena eta guztien arteko elkarbizitza). Beren emozioak zentsurarik gabe bizitzen uzten die, bakoitzaren askatasuna muga dutelarik. Pedagogiaren lerroa auto-erregulazioaren (W. Reich, A.S. Neill) printzipioan oinarritzen da. Ikasleak bere beharrak asetzeko gaitasunean sinesten du eta norberak barnean dituen gaitasunak garatzeko potentzian. (<http://heziketaz.blogspot.com.es/2007/02/tximeleta-irueako-eskola-alternatiboa.html>)

Auto-erregulazioa, bakoitzaren pertzepzioaren bidez gidatzean datza, bakoitzaren garapenerako egokiena aurkitu, kanpoko balore edo eskemen mende egon gabe.

3.1.3.4. Metodologia 3.1.3.4

Ikastetxe honen printzipio nagusia autonomia eta autodidaktismoa dira. Bere hezkuntza filosofia munduko beste eskola libreen filosofiari zor dio. Umearen eta helduen parte-hartze aktibo eta zuzena, espazioaren gestioan eta arazoan ebazpenean. Arreta berezia eskainiz ikasle bakoitzaren jarrera eta sendotasunari beren ikaskuntza prozesuan. Errespetu handia erakutsiz pertsonen arteko desberdintasunei. Arreta berezia ematen zaio jolas libreari, oinarritzko ikasketa bezala. Ariketa, material eta espazioaren proposamen zabalarekin norberak bere interesak garatu ditzan. Zentzua ematen duen ingurune sozial eta familiar bat, koherentzia ematen diona barnean eta kanpoan pasatzen denari.

Jarraian "egun bat eskolan" (<http://heziketaz.blogspot.com.es/2007/02/tximeleta-irueako-eskola-alternatiboa.html>) nola izaten den ikusiko dugu, bertako metodologia eta errutinak ikusteko aukera ematen duelarik. Ikasleak 9:30tarako sartzen dira eskolara eta azkena sartzean errutinaren parte den asanblearekin hasten dira: agurtu, bakoitza nola dagoen azaldu eta arauak erreparatzen dituzte: minik ez egin, gauzak elkarbanatu eta errespetatu... Egunerokotasunean beharren arabera arau berriak sortzen doazelarik. Asanblearen ondoren jolastera joaten dira, indibidualki, bikoteka edo taldean, ikaslearen nahien arabera. Momenturo azaltzen diren arazoak, momentuan ebazten direlarik. Ondoren hamaiketakoan, gauzak ez kentzeko, konpartitzeko, trukaketak... egiten ikasteko aprobeztatzen dute. Ondoren, beste ekintza batzuen artean antzerkiak egiten dituzte, irakasleak istorioak kontatzen dizkie ipuinen bidez, honek ikasleak beraiek kontatzera animatzen dituztelarik. Gorputzarekin gauza asko lantzen dira, beti oin hutsik, batzuetan biluzik, masajeak ematen dituzte eta irakaslea beti lurrian egoten dela adierazten dute. Momenturo sortzen diren egoerekin, jolas sinbolikoaren baliabidearekin, psikomotrizitatearekin, ikasleak bere mundu psikoafektiboa erakusten dute, honek irakasleari ikasle bakoitzaren garapen indibiduala ezagutzeko aukera ematen diolarik.

Askotan ikasleek beraiek egiten dituzte ikasi nahi dutenaren inguruko proposamenak, curiositatea eragiten dieten kontzeptuetatik abiatuta. Goizaren amaieran beste

asanblea bat egiten dute, zer moduz sentitzen diren eta nola pasatu duten galdetzen dutena, honela goiza amaitutzat emanaz.

3.2. Proiektuen bidezko metodologia duen eskola 3.2

3.2.1. Erentzun ikastola 3.2.1

Azken ikastola honetan egindako azterketa, besteen aldean pixka-bat aldatuko da. Ikastetxe hau ez da aditu zehatz baten teorietan oinarritu bere metodologia edo egitasmoa prestatzerako garaian. Ikastetxe hau berriztagarria dela esan dezakegu ebaluatzeko erabiltzen duen metodologiagatik, hau proiektu bidezkoa da. Ikastola honek, Europar Kontseiluak proposatutako kompetentziak modu egoki batean lantzeko asmoz hartu zuen proiektuen bidezko lanketa egiteko erabakia. Kompetentzia hauek, modu desberdinetan landu badaitezke ere, oinarritzat Lopez-Goñi, I. eta Goñi, J.M.-k proposatzen dutena hartu zuten.

Lopez-Goñi, I. eta Goñi, J.M. (2013) azaltzen diguten bezala, 2006ko abenduaren 18an Europatik ikaskuntza iraunkor bat gauzatzeko proposamena iritsi zen. Honako hauek ziren:

- Ama hizkuntzan komunikatzea
- Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea
- Matematika eta zientzia eta teknologiaren oinarritzko kompetentziak
- Kompetentzia digitala
- Ikasten ikasi
- Kompetentzia sozial eta gizalegekoak
- Iniziatiba zentzumena eta enpresa espiritua
- Kontzientzia eta espresio kulturala

Espainiak kompetentzia hauek LOE legearen (2006) barnean txertatuak ekarri zituen, nahiz eta beste alorretan aldaketarik ez egin hauek garatu ahal izateko.

Lopez-Goñi, I. eta Goñi, J.M. (2013) kompetentzi hauek garatu ahal izateko, proposamen bat egiten dute, honi "TAC" (Trabajo de Aplicación Contextualizada) izena ematen dielarik, eta honela definitzen dute: "TAC ezagutzen aplikapenez osatutako sekuentzia didaktiko bat da, ezagutza hauek lehenagotik curriculumaren alor

desberdinetan barneratuak izan direlarik. Ondoren modu integratua eta esanguratsuan aplikatuak izan behar dute" (Lopez-Goñi, I., Goñi, J.M., 2013, 155)

Jarraian definizioan azaltzen diren hitz gakoek azalpena emango da:

- Sekuentzia didaktikoa: ebaluatua izan daitekeen eta ikaskuntza helburua duen ariketen multzo baten egitura curricularra da. Egituratua esatean, lehendik garatu diren konpetentzia guztiak barne hartzen dituela esan nahi da eta guztiekin egitea posible ez denean, hauetako esanguratsuenak hartuko dituela esan nahi da. Beraz ez da konpetentzia bat edo gutxi batzuk bakarrik landuko. TAC egitura curricularrarekin harremanatzea da gakoa, hau curriculumaren barnean egoteko.
- Lehendik eskuratutako ezagutzen aplikapena: Aplikapen honekin, lehendik ikasitakoa arlo desberdinetan ongi barneratua geratzea du helburu.
- Curriculumeko arlo desberdinak: Arlo desberdinak batera lantzearekin, diziplina-artekotasuna lantzen da, honela gai guztietako ezagutzak integratzea eskatzen du ariketak egiterako garaian.
- Landutako gaiak, ikaslearen ezaugarrien araberako zailtasun maila izan behar du: Ikasleari egin beharreko ariketak ez badio esfortzurik suposatzen, ez du ezer berririk ikasiko, beraz ez ditu konpetentziak landuko.
- TAC-ek konpetentzien proposamen itxia landuko du: Proposamenak eskolako curriculumaren parte izan behar du eta ikastetxeko proiektu curricularren barnean azaldua egon behar du. Beraz ez du zerbait orokorra izan behar, aurretik egituratua dagoen proposamenaren parte baizik.
- Bakarkako eta talde-lana: Bi moduetan lan egingo dute, konpetentzien garapenerako biak baitira garrantzitsuak. Bi moduen aukeraketa, landuko den konpetentziaren araberakoa izango da. Baina modu autonomoan lan egitea ezinbesteko baldintza izango da, hau baita landu nahi ditugun konpetentziak barneratzeko ezinbesteko baldintza.
- TAC-ek erreferentzia bezala hartzen ditu testuinguru pertsonala, familiarra, soziala eta aurre-profesionala.
- TAC-ak sekuentzia didaktikoak direlako, banaketa hau izango dute:

1. Haserako ariketak eta motibazioa: Garrantzi berezia du, aurreko ezagutzen errepassoa egingo delako.
2. Garapenerako ariketak
3. Errepaso ariketak eta amaierako ebaluazioa
 - Lanaren amaieran ikasleak egindakoa azaltzeko ariketa izango du. Hau modu desberdinetan egin ahal izango du, ahoz, idatziz, muralen bidez, antzerkiekin... Hau ere, hainbat konpetentzi barneratzeko erabiliko da (linguistikoak, artistikoak, digitalak...).

3.2.1.1. Ikastolaren historia 3.2.1.1

Viana-n (Nafarroa) kokatua dagoen ikastola, hezkuntza kooperatiba da 1978. urtean sortua. Zentro euskalduna da, plurala, ez diskriminatzailea eta akonfesionala.

Orain dela urte pare bat, Lizarrako ikastola eta Etxarriko Andra Mari ikastolarekin batera Amalur proiektuari ekin zioten. Proiektu honen bidez ikasleak konpetentzietan trebatzea eta honela gizarteko behar eta aldaketetarako konpetente egitea du helburu.

3.2.1.2. Ikastolaren oinarri teorikoa 3.2.1.2

Erentzun ikastolak bere ikasleak etorkizuneko pertsona konpetente bihurtzea du helburu. Hori posible izateko, konpetentziak hartu zituzten beren egitarauaren atal nagusi.

Konpetentzien balioa ikusirik Lizarrako eta Etxarriko ikastetxeekin batera Amalur proiektua garatzeari ekin zien. Amalurren web orrialdean (<https://sites.google.com/site/amaluroko/home>) proiektuaren inguruko datu guztiak ikusi ditzakegu modu erraz eta argian. Amalur egitasmoarekin oinarritzko konpetentziak teoriatik praktikara eraman nahi izan dituzte. Honetarako ikasleei beraientzat esanguratsuak diren arazoak planteatzen dizkie, ondoren hauek dituzten baliabideekin ebatzi beharko dituztelarik.

Ikastetxe bakoitzak, beren ingurunera moldatuz, bateratze lanak izeneko proiektuak egiten dituzte. Bateratze lan hauetan ikasleei arazo desberdinak planteatzen zaizkie beraientzat esanguratsua den testuinguru batean eta hauek gai desberdinetan

ikasitakoa aplikatu beharko dute hau ebazteko. Zenbait kasutan bakarka aritu beharko dute lanean, beste batzuetan berriz taldean. Bateratze lan hauek errepikakorrak izango dira, hau da urtez urte gauzatuko dituztena.

Amalur proiektuan parte hartu duten hiru ikastetxeek beren maila guztietarako sortu dituzte bateratze lanak Lizarra eta Etxarrin 3 urtetatik 4. DBH-ra arte, Vianako eskolan berriz 3 urtetik 6. mailara arte.

Bateratze lan hauen helburua ikasleak kompetenteak diren neurtzea da, hiruhilekoan ikasi dutena aplikatzeko gai diren egiaztatuz. Kurtso guztian zehar hiru proiektu egingo dituzte, bi lehenengo sei hilekoa eta bestea bigarren goan. Lan hauetako bakoitzean, hiruhilekoan ikasitako guztia edo atalik esanguratsuenak martxan jarri beharko dituzte beren helmugara iristeko.

3.2.1.3. Metodologia 3.2.1.3

Ikastetxe honetan kontzeptuak erakusteko erabiltzen den metodologia, metodologia tradizionala da, hau da, ikasgaiak modu deskontestualizatuan lantzen dira, bakoitza bere aldetik.

Behin kontzeptuak barneratutakoan, ikasgai guztiak modu globalizatuan lantzeari ekiten zaio bateratze lanetan. Ikasleentzat gertukoa eta motibagarria den arazo bat planteatzen da eta hauek aurretik eskuratutako ezagutzekin ebatzi beharko dituzta, modu kontestualizatu eta esanguratsuan. Ikasleek dituzten estrategia, baliabide eta ezagutza guztiak bakarkako eta taldeko lan honetan martxan jarri beharko dituztelarik. Lan hau gauzatzen ari diren bitartean irakasleak ez du ezer berririk azalduko, azaldu beharreko guztia eta jakin behar dutena lanarekin hasi aurretik ikasia izan beharko dutelako. (<https://sites.google.com/site/1adinetik2adinera/a---datu-orokorrak>)

3.2.1.4. Ebaluazio 3.2.1.4

Ikasle hauen ebaluazioa bateratze lanen bidez egingo da. Ikasleak lan guztian zehar egiten dituen lan desberdinekin glosategi bat egin beharko du eta ondoren hauetako lan bakoitza helburu eta kompetentzia desberdinak ebaluatzeko erabiliko da. Modu honetan ikaslearen gaitasun desberdinak egoera erreal batean aplikatzeko gaitasuna ere ikusten da, hau da "egiten jakin". (<http://erentzun.blogspot.com.es/p/identidad.html>)

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzaileak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

3. GOAZEN LANEAN

Lan honi puntua jartzeko, ikerketa lan hau Erentzuk ikastolako adibide zehatz batetara mugatu nahi izan dugu. Modu honetan, orain arte ikusitako teoriaren aplikapen praktiko txiki bat islatuko da azken atal honetan.

Bateratze-lan hau 6. mailako ikasleek lantzen dute eta 1. adinetik 3. adinera du izenburua. Bertan ikasleek herriko zahar-etxean denbora pasa ezberdinak aurkeztu beharko dituzte, baina honen aurretik, prestakuntza guztia beraien esku egongo da.

Ikastetxe honen eta Amalur proiektuan sartuak dauden beste bi ikastetxeren artean, bateratze-lan mordera bildu dituzte, baina lan honetan jartzeko proiektu konkretu hau aukeratzearen arrazoia argia izan da. Ikasleak konpetentziak garatzeaz gain, ikastolatik kanpoko errealitatearekin harremanetan jarri behar izan dute, honek ekartzen duen erresposabilitate eta zailtasunarekin. Modu honetan ikasleentzat esanguratsuagoa dela iruditu zaigu eta beraz, osoagoa ere bai.

Bateratze-lan guztiek, honek barne, atal hauek dituzte: datu orokorrak, irakaslearen atala eta ikasleen atala.

Hona hemen bateratze-lana: (<https://sites.google.com/site/1adinetik2adinera/>):

A - DATU OROKORRAK

Izenburua:	1. ADINETIK 3. ADINERA
Ikastola:	ERENTZUN IKASTOLA
Etapak:	LEHEN HEZKUNTZA
Maila:	5. eta 6. maila
Ikas-arloak:	Lengua Castellana, Ingurunea, Arte Hezkuntza, Euskara eta Matematika
Data:	2010eko urria
Egileak:	Fultxo Crespo Ortigosa

B - IRAKASLEEN ATALA

Proiektuaren deskribapen laburra

Proiektua herriko zahar-etxea bisitatu eta bertan ikuskizun bat antolatzean datza.

LAN EGITEKO ERA

Lana baitik bat taldean egingo da baina banakako konpetentziak bermatuko dira jardueretan. (Adibidez eskutitz formala sortuko dute indibidualki baina gero taldean erabakiko da idatzitako eskutitzetatik zein bidaliko den ongi idatzita dagoelako eta ezaugarriak betetzen dituelako.)

Jarduera batetik bestera aldaketak egongo dira antolaketan.

Jarduera	Taldekaketa
1. jarduera: Eskutitz formala	Banaka
2. jarduera: 3. adina Viana	Banaka
3. jarduera: Emanaldia antolatzen I	Talde txikian (4 ikasle)
4. jarduera: Gidoia	Talde txikian
5. jarduera: Emanaldia antolatzen II	Talde txikian
6. jarduera: Kartela	Banaka
7. jarduera: Emanaldia	Taldeka/banaka
8. jarduera: Lan bilduma	Banaka

DENBORA OSOTARA

Proiektu honetan 50-60 minutuko saio hauek aurreikusten dira:

Jarduera	Saioak (ikastolan)
1. jarduera: Eskutitz formala	2 saio
2. jarduera: 3. adina Vianan	3 saio
3. jarduera: Emanaldia antolatzen I	1 saio
4. jarduera: Gidoia egiten	1 saio
5. jarduera: Emanaldia antolatze II	1 saio

6. jarduera: Kartela	2 saio
Entseguak	1 saio
Guztira	13 saio

Honetaz gain, ikasle edo taldearen arabera, etxean lan egin beharko dute.

BITARTEKO MATERIALAK

Proiektua aurrera eramateko bitarteko material hauek beharko dira:

- Ordenagailuak interneteko konexioarekin.
- Gelako proiektorea.
- Softwarea:
 - Testu prozesadorea
 - Paint/ Tuxpaint programak
 - Create a Graph
 - Google Calendar
 - Gmail
- Musika ekipoa - Irrati kasetak.
- Antzerkirako beharrezkoa den materiala: jantziak, makillajea, dekoratuak...

Aurre ezagutzen zerrenda

Proiektua aurrera eramateko ikasleek aurrezagutza hauek izan behar dituzte:

- Eskutitza idazteko prozedura
- Grafiko sinpleak egiteko programaren erabilera (Create a Graph)
- Testu prozesadorea erabiltzeko prozedura
- Antzerki gidioak egiteko prozedura
- Kartel bat ekoizteko prozedura

Curriculuma antolatzeke taula

Proiektuaren CURRICULUMaren ANTOLAKUNTZA																			
Ekintza	Jarrera	Teknologia	Eremuak 1 Akademikoa 2 Pertsonala	Jarduera (znk.)	Konplexu- tasun taula (1,2,3)	Denbora (min)	Ikastar loak	K.O. A B	Oinarrizko kompetentziak										
									1	2	3	4	5	6	7	8			
Kompetentzia																			
1. Eskutitz formal bat idaztea prozedura egokia jarraituz eta testu prozesadorea erabiliz.			1, 3	1	2	30	Hizkuntza	B	X										
2. Zaharren Etxean eta gure inguruan zahartzaroaren errealitatea eta egoera definitzen duten ezaugarriak identifikatu eta behar den kasuan taulaz zen grafikoz adierazi adin honekiko errealitatea piztuz (zaharren lekuan jarritz).			3	2	2	60	Gizarte, matematika	C, E				X	X						
3. Gure emanaldiaren lanak eta ardurak behar bezala betetzea zuen burua modu egokian antolatuz: paperak banatzea, ardurak banatzea: dekoratuak egin, atrezzoak lortzea, musika...			2, 3	3	3	120	Arte hezkuntza, hezkuntza	E							X				X
4. Emanaldiaren gidoia modu kooperatiboz idaztea teknologiatik baliabideak erabiliz.			1, 3	4	2	60	Hizkuntza	A, E	X		X								

5. Emanaldiko entsegu egunak eta bestelako lanak planifikatu egutegi digitala erabiliz.			2	5	2	30		E											X
6. Kartel bat diseinatu eta prestatu emanaldiaren berri emanez gaia kontuan hartuz eta konposizioa zainduz.			3	6	3	60	Arte Hezkuntza	B	X						X				
7. Emanaldia aurrera eramanez adinekoen gure alaitasuna, ilusioa eta energia transmitituz; antzezpenean disfrutatuz eta haiekiko errespetua adieraziz.			2, 3	7	3	120	Hizkuntza, Arte hezkuntza	B, E					X	X					
8. Norberaren lan arduratu, autoebalatu eta bukaeran egindako jarduerak guztien lan bilduma (portfolioa) era egokian bildu eta irakasleari aurkeztu.			1, 2	8	3	60		E									X		X

K.O. (Kompetentzia Orokorrak): A_Pentsatzen eta ikasten ikasi, B_Komunikatzen ikasi, C_Elkarrekin bizitzen ikasi, D_Norbera izaten ikasi, E_Egiten eta ekiten ikasi.

Oinarrizko kompetentziak: 1_Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna, 2_Matematikarako gaitasuna, 3_Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarrekin aritzeko gaitasuna, 4_Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, 5_Gaitasun soziala eta herritartasuna, 6_Arte eta kultur gaitasuna, 7_Ikasten ikasteko gaitasuna, 8_Autonomia eta ekimen pertsonala

Ebaluazioa

Notaren eragina ikasgai bakoitzean:

Ikasgaia	%
Matematika	5
Euskara	10
Gaztelera	20
Ingurunea	10
Arte Hezkuntza	20

Ebaluaziorako tresna eta irizpideak

Konpetentzia	Notaren %	Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpideak
1. Eskutitz formal bat idaztea prozedura egokia jarraituz eta testu prozesadorea erabiliz.		Portfolioa: eskutitz arrunta	<ul style="list-style-type: none"> - Emandako prozedura jarraitu egin du. - Eskatu behar zena eskatu egin du. - Zuzentasun maila egokia da. - Erabilitako hiztegia egokia da.
2. Zaharren Etxean eta gure inguruan zahartzaroaren errealitatea eta egoera definitzen duten ezaugarriak identifikatu eta behar den kasuan taulaz zen grafikoz adierazi adin honekiko enpatia piztuz (zaharren lekuan jarritz).		Portfolioa: galdetegia	<ul style="list-style-type: none"> - Guztiz osaturik dago. - Ematen den informazioa zuzena da. - Eginiko grafiko zein taula ongi daude eta toki egokian jarrita.
3. Gure emanaldiaren lanak eta		Portfolioa: lana	- Lanen banaketa

ardurak behar bezala betetzea zuen burua modu egokian antolatuz: paperak banatzea, ardurak banatzea: dekoratuak egin, atrezzoak lortzea, musika...		antolatze txantiloia	<p>orekatua izan da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tokatu zaion parte ongi bete du eta ekarri duen proposamena egokia izan da. - Sortzailea erakutsi da lan honetan eta modu aktibo batez jokatu egin du.
4. Emanaldiaren gidoia modu kooperatiboz idaztea teknologiako baliabideak erabiliz.		Portfolioa: gidoia	<ul style="list-style-type: none"> - Gidoia ongi egituraturik dago. - Egokia da estiloz emanaldi mota honetarako. - Hizkuntz erregistroz aberatsa da.
5. Emanaldiko entsegu egunak eta bestelako lanak planifikatu egutegi digitala erabiliz.			
6. Kartel bat diseinatu eta prestatu emanaldiaren berri emanaz gaia kontuan hartuz eta konposizioa zainduz.		Portfolioa: kartela	<ul style="list-style-type: none"> - Ongi islatzen du zer emanaldi mota den. - Behar den informazioa jarrita dago. - Konposizioa egokia da. - Sortzailea da.
7. Emanaldia aurrera eraman adinekoei gure alaitasuna, ilusioa eta energia transmititz; antzezpenetan disfrutatuz eta haiekiko errespetua adieraziz.		Portfolioa: emanaldiaren behaketa orria	<ul style="list-style-type: none"> - Behar zuena eraman du. - Bere parte ongi egin du. - Emandako aholkuak jarraitu ditu. - Jantzkeria egokia.

			<p>- Errespetuz eta alaitasunez jokatu du.</p> <p>- Lagundu du materialarekin, eramaten eta ekartzen.</p>
8. Norberaren lanaz arduratu, autoebalatu eta bukaeran egindako jarduera guztien lan bilduma (portfolioa) era egokian bildu eta irakasleari aurkeztu.		Portfolioa: portfolioa bere osotasunean	- Behar dituen parte guztiak ditu. Ongi egituratuta dago.

IKASLEEN ATALA

Ikasi behar dena
<ul style="list-style-type: none"> • Eskutitz formal bat idaztea prozedura egokia jarraituz eta testu prozesadorea erabiliz. • Zaharren egoitzan eta gure inguruan zahartzaroaren eta errealitateaz eta egoeraz jabetzea adin honekiko enpatia piztuz (zaharren lekuan jarritz). • Gure emanaldiaren lanak eta ardurak behar bezala betetzea zuen burua modu egokian antolatuz: paperak banatzea, ardurak banatzea: dekoratuak egin, atrezzoak lortzea, musika... • Emanaldiaren gidoia modu kooperatiboz idaztea teknologiako baliabideak erabiliz. • Emanaldiko entsegu egunak eta bestelako lanak planifikatu egutegi digitala erabiliz. • Kartel bat diseinatu eta prestatu emanaldiaren berri emanez gaia kontuan hartuz eta konposizioa zainduz. • Emanaldia aurrera eramanez adinekoei gure alaitasuna, ilusioa eta energia transmitituz; antzeppenetan disfrutatuz eta haiekiko errespetua adieraziz. • Norberaren lanaz arduratu, autoebalatu eta bukaeran egindako jarduera guztien lan bilduma (portfolioa) era egokian bildu eta irakasleari aurkeztu.

Proiektuaren deskribapen laburra
<p>Dakizuenez gizakion bizitzan aro desberdinak daude: Haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, helduarora eta zahartzarora. Proiektu honen bitartez zahartzarora hurbilduko gara eta adin zaharreko jendea eta bere bizitza ezagutzeko aukera izango dugu. Nola egingo duzue hori? Zaharren Egoitzan emanaldi txiki bat antolatuz.</p> <p>Ohituta zaudete antzerkiak egiten baina oraingo honetan ZUEK antolatu beharko duzue emanaldia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zaharren Egoitzako arduradunak proiektu honi buruz informatuz. • Zuen artean ardurak, paperak eta eginbeharrak banatuz. • Emanaldia kartelen bitartez iragarritz. <p>Ikusten duzue egin behar duzuen lana ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Animo eta ahal bezain pronto lanean hasi.</p>

Jardueren zerrenda

1. Jarduera	Izena: Eskutitza
2. Jarduera	Izena: 3. adina Vianan
3. Jarduera	Izena: Emanaldia antolatzen I
4. Jarduera	Izena: Gidoia Idazten
5. Jarduera	Izena: Emanaldia antolatzen II
6. Jarduera	Izena: Kartela
7. Jarduera	Izena: Emanaldia
8. Jarduera	Izena: Lan bilduma

1. Jarduera

Zer ikasi behar da?
Eskutitz formal bat idaztea prozedura egokia jarraituz eta testu prozesadorea erabiliz.
Zer egin behar da?
Dakizuenez gure proiektuaren helburua 3. adina ezagutzea eta Zahar-Etxeko agureei begira etorkizun bat antolatzea da.
Hasi aurretik, proiektua jakinarazi behar diegu bertako arduradunei. Horretarako

biderik zuzenena eskutitz formal bat idaztea da.

Esutitzaren egitura jadanik ezagutzen dugunez ez dugu horretan deborarik galduko. Bakar-bakarrik eskutitz mota honetan erabiliko diren sarrerarako eta agurrerako eredu batzuk emango dizkizuegu eta baita haur batzuk museo bat bisitatzeko idatzi zuten eskutitza.

LANEAN HASI!

- Proiektuko lan guztiak bilduko dituen karpeta bat sortu eta izen egoki batez izendatu.
- Idatz ezazue orain testu prozesatzailea erabiliz zuen eskutitza. Irakurri eta ortografia errebisatu.
- Formatu egokia eman. Letra tamaina 12-14, tarte 1,5 - 2. Itsura begiratu.
- Dena ongi badago proiektuko karpetan gorde.
- Irakasleari kopia bat emango diozue berak adierazten duen karpetan.
- Zozketa eginez erabakiko dugu zein den bidaliko dugun eskutitza, hori bai, ongi idatzita egon behar du.

Ekoizpena

Eskutitz formal bat.

Ebaluazioa

Irakasleak ebaluatuko duena:

Auto-ebaluazioa:

Erantzun galdera hauei: Zer ikasi duzu? / Nola egin dut lan? (1-5) / Nola ibili gara taldean? (1-5) / Jardueran izandako zailtasunak / Erabilitako denbora Bukatze data

2. Jarduera

Zer ikasi behar da?

Zaharren Etxea eta gure inguruan zahartzaroaren errealitatea eta egoera definitzen duten ezaugarriak identifikatu eta behar den kasuan taulaz zein grafikoz adierazi adin honekiko enpatia piztuz (zaharren lekuan jarriz).

Zer egin behar da?

(Banaka) Zer dakigu zahartzaroari buruz? Jarraian duzuen galdetegia lagunduko dizue zahartzaroaren errealitatea deskubritzen. Galdetegia betetzeko datu bilketa egitea proposatzen dizuegu. Datuak lortzeko iturriak, Internet, zuen familiak, Zaharren Etxeko arduradunak, liburu edo entziklopediak eta zuen esperientzia pertsonala izango dira. Galdetegia ongi betetzeko bi helbide hauek beharko dituzu:

<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako Estatistika Institutuko 2001. urteko populazio datuak. • Create a Graph tresna.(Behean duzu bere funtzionamendua azaltzen duen dokumentua). <p><i>Lanean hasi!</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Galdetegia zabaldu eta irakurri. • Gelan galdetegiaren 1. eta 2. zatia bete. Etxean guraso edo aiton-amonen laguntzarekin osatu. Behean • Informazioa bildu (Zaharren Etxeko arduradunekin egonez) eta galdetegiaren 2. zatia bete. • Idatzi duzuna birpasatu eta beharrezkoa ikusten baduzu galderak letra lodiz jarri (negritaz). • Galdetegia proiektuaren karpeta pertsonalean gorde, "Egoeraren informazioa" izenarekin 	
Ekoizpena	
Etxean eta zahar-etxean bildutako informazioaren txostena.	
Ebaluazioa	
Irakasleak ebaluatuko duena:	
Auto-ebaluazioa:	Lan neketsua izan da, ezta? Nola ikusi duzue zuren burua? Norberaren autoebaluaziorako fitxa ireki eta zintzoki (gezurrik esan gabe) bete ezazue.

3. Jarduera

Zer ikasi behar da?
Gure emanaldiaren lanak eta ardurak behar bezala betetzea zuen burua modu egokian antolatuz: paperak banatzea, ardurak banatzea: dekoratuak egin, atrezzoak lortzea, musika...
Zer egin behar da?
(Taldeka) Lehenik eta behin emanaldiaren saioak erabaki beharko dugu ikasgela osoarekin. Zuek erabaki nola egingo duzuen hori, bozketaren bitartez, saio bakoitza egiteko prest dagoen jendearen arabera... Guzti hau antolatzeko moderatzaile bat aukeratu beharko duzue.

Lanean hasi!

- Erabaki ezazue zer saio egingo dituzuen.
- Erabaki zenbat lagun hartuko dute parte saio bakoitzean. Taldeko 4-5 ikasle gehienez.
- Guztiz beharrezkoa balitz ikasle bat bi taldetan egon daitezke.
- Gogoratu garrantzitsuena ez dela lagunekin egotea, egundoko emanaldi ona ematea baino!
- Taldean bildu eta saioaren ideia borobiltzeko eta saioa ongi antolatzeko behean duzuen txantiloia bete.
- Txantiloia inprimatu taldeko bakoitzari kopia bat emanaz.

Ireki ezazu "Archivos adjuntos atalean" duzun "Saioaren antolaketarako dokumentua" bertan eskatzen den informazioaz bete eta gero "Gure saioa" izenarekin zure karpetan gorde.

Ekoizpena

Zahar-etxean egingo diren ekintzekin taula bat bete.

Ebaluazioa

Irakasleak ebaluatuko duena:

Auto-ebaluazioa:

Ireki "auto-ebaluazio orria" dokumentua eta gaurko lanari dagokiona bete eta gero berriro gorde ezazu zure karpetan.

4. Jarduera

Zer ikasi behar da?

Emanaldiaren gidioa modu kooperatiboz idaztea teknologiako baliabideak erabiliz.

Zer egin behar da?

(Taldea) Edozein antzerki bezala gureak ere gidioa behar du eta denon artean osatu beharreko lana izango da hau.

Google Docs-en irakasleak dokumentua ireki du eta gelakide guztiekin partekatu du. Dokumentu horretan talde bakoitzak bere gidoi zatia idatziko du.

Kontuan hartu:

- Gidoia zuzenean idatz dezakezue edo lehenengo zirriborro bat egin paperean eta gero ordenagailuan idatzi. Zuek ikusi.
- Ezin da idazten hasi, ez baduzue zer idatzi behar duzuen taldekide guztiekin erabaki!
- Gidoian aurkezlearen zatia ere idatziko dugu. Talde bakoitzak bere saioan aurkezleak egingo dien sarrera idatziko . Bestalde, aurkezleek emanaldiaren hasiera eta bukaerako zatia idatziko dute.
- Ikasturte honetan antzerki gidoi bat egiten ikasi dugu. Hori egiteko modua errespetatu egin behar da. Ez ahaztu, beharrezkoa denean akotazioak edo oharrak idazten.
- Musika, soinu efektuak edo bestelakoak (argiak itzali, serpentinak bota...) gidoian adierazi behar dira gorritz eta testutik banatuta. Pertsonaien izenak negritaz (lodia) nabarmendu. Prestatutako gidoi adibidea ikusi.
- Gidoia oso zehatza bada hobe, ustekabe gutxiago izango ditugu.

Lanean hasi!

- Gidoiaren zirriborroa egin.
- GoogleDocs-en idatzi dagokigun tokian.
- Ozenki irakurri nola entzuten den jakiteko.
- Akats ortografikoak errebisatu:

Euskaraz	Gaztelaniaz
○ Puntuazioa	○ Puntuazioa
○ h	○ tildeak
○ z/s	○ h
○ tz/ts/tx	○ v/b
○ Esaldiaren	○ z/c qu/c
ordena	

- Azken errebisioa egin.
- Denon bukatzen dutenean gidoi osoaren kopia bat gordeko duzue *odt formatuan* (OpenOfficerena) proiektuaren karpeta pertsonalean.
- Denon artean begiradaxoa bota ondoren (proiektorea erabiliz) Irakasleak banatuko dizkizue gidoiaren kopia bana.

Gidoia idazten bukatzen duzunean, ez ahaztu idatzitakoa gordetzen "Gure gidoi" izenarekin zure karpetan.

Ekoizpena	
Google Docs-en txertatuko den gidoia	
Ebaluazioa	
Irakasleak ebaluatuko duena:	
Auto-ebaluazioa:	Ireki "auto-ebaluazio orria" dokumentua eta gaurko lanari dagokiona bete eta gero berriro gorde ezazu zure karpetan.

5. Jarduera

Zer ikasi behar da?
Emanaldiko entsegu egunak eta bestelako lanak planifikatu egutegi digitala erabiliz.
Zer egin behar da?
<p>(Taldeka) Emanaldiaren diseinua erdi egin daukazue: behar duzuen materiala, gidoia... Baina askotan gaizki planifikatzen garelako, egin beharrak ahazten ditugulako dena azken momenturako utzi eta presaka eta korrika ibiltzen gara, edo, okerrera: zerbait garrantzitsua ahazten zaigu!</p> <p>Hori ez gertatzeko egutegi bat osatzea da onena eta egunero egutegi hori begiratzea gaur edo bihar zer egin behar dugun jakiteko. Agenda ere erabil dezakezue baina agenda baina erabilgarriago den tresna bat probatuko duzue: Google Calendar.</p> <p><i>Lanean hasi!</i></p> <ol style="list-style-type: none"> Ikastolako kontuarekin lotutako egutegia zabaltzeko bi aukera dituzu: http://calendar.erentzun.com helbidera jo edo zuen posta pertsonaletatik abiatua Calendar loturan klikatu (goian, ezker aldean). Egutegian zaudela hileko ikuspegia aukeratu eta zuen egutegi pertsonalean datak sartzen hasi: <ul style="list-style-type: none"> Paperak ikasteko erabiliko dituzuen egunak. Entseguak. 2 klase orduetan. Nahi dituzuenak klase orduetatik kanpo. Entsegu orokorra. Emanaldiaren eguna. Musika prest egongo denaren eguna. Material guztia prest egongo denaren eguna. Jantzi guztiak prest egongo diren eguna. Bestelakoak: dekoratuak egiteko eguna, norbaitekin hitz egiteko

eguna...	
3. Bukatzen duzuenegun egutegia inprima ezazue hilabeteko ikuspegiarekin eta baita agenda ikuspegiarekin.	
4. Denbora baduzue aukeran alarmak edo abisuak programa ditzakezue. Aurki ezazue nola!	
Kontuan hartu:	
<ul style="list-style-type: none"> • Egutegia osatzearekin ez da nahikoa. Hemendik aurrera egunero kontsultatzea behar-beharrezkoa da. • Material guztia duzuen ala ez erabil ezazue aurrekoan sortu genuen zerrenda eta boligrafoarekin marka ezazue duzuen. Honela den-dena ekarri duzuela ziurtatuko duzue. 	
Beharrezkoa baduzu, hemen duzu Calendarreko tutorial txiki bat.	
Ekoizpena	
Egutegi bat	
Ebaluazioa	
Irakasleak ebaluatuko duena:	
Auto-ebaluazioa:	Ireki "auto-ebaluazio orria" dokumentua eta gaurko lanari dagokiona bete eta gero berriro gorde ezazu zure karpetan.

6. Jarduera

Zer ikasi behar da?
Kartel bat diseinatu eta prestatu emanaldiaren berri emanaz gaia kontuan hartuz eta konposizioa zainduz.
Zer egin behar da?
(Banaka) Egiten dugun kartela erakargarria izan behar du eta informazioa argi ikusi behar da, bestela publikorik gabe gera daitezke :-), eta hori da, hain zuzen ere, nahi ez duguna. Baina lasai, kartela egiteko laguntza emango dizuegu.
1.- Lehengo kartelean egongo den informazioa erabaki beharko duzue: zer egongo den, non, noiz, nork antolatu duen... Helburua ahalik eta jende gehien erakartzea denez lelo bat idatz dezakezu, adibidez, Ez galdu ikuskizun paregabe hau!

2.- Gero kartelaren zirriborroa egin behar duzue. Horretarako onena orri txuri bat erabiltzea da. Zirriborroa garrantzitsua da, ona baldin bada denbora aurreztuko duzu. Bat baino gehiago egin ditzakezue eta gero onena aukeratu.

3.- Zirriborroa egiten duzuen bitartean zer teknika erabiliko duzuen pentsatu behar duzue: linoleoa, argizariak, akuarelak, tenperak, errotulagailuak, collage-a, ordenagailua.... Teknika mistoak erabil ditzakezue ere bai: adibidez akuarelak eta errotulagailuak nahastuz edo ordenagailua eta tenperak. Honen inguruan informazio gehiago duzu behean dagoen dokumentuan.

4.- Ordenagailuarekin egin nahi izanez gero zer programa erabiliko dituzuen erabaki behar da: testu prozesatzailea, interneteko irudiak, zuek sortutako irudiak (TuxPaint edo Paint erabiliz), eskaneatutakoak...

5.- Kartela egiteko garaian A3 formatuko orriak erabili behar dituzue.

6.- Kartel batzuen adibideak ipini ditugu hemen inspiratzeko.

Lanean hasi!

Beno zuen kartela egiteko bi saio besterik ez dituzue, hasi lanean jada.

1. Sartuko duzuen informazioa paper batean idatzi.
2. Erabiliko duzuen teknika erabaki.
3. Zirriborroak egin.
4. Horietako bat aukeratu.
5. Kartela egin.
6. Aurkeztu aurretik dena ongi dagoen errebisatu.

Ekoizpena

Saiorako kartela

Ebaluazioa

Irakasleak ebaluatuko duena:

Auto-ebaluazioa:

Ireki "auto-ebaluazio orria" dokumentua eta gaurko lanari dagokiona bete eta gero berriro gorde ezazu zure karpetan.

7. Jarduera

Zer ikasi behar da?	
Emanaldia aurrera eraman adinekoei gure alaitasuna, ilusioa eta energia transmitituz; antzezpenean disfrutatuz eta haiekiko errespetua adieraziz.	
Zer egin behar da?	
(Taldeka) Emanaldia egiteko unea iritsi da. Hona hemen emanaldirako azken gomendio garrantzitsuak.	
<ul style="list-style-type: none"> • Material guztiak prest egon behar du. Baita lagunduko dizueten pertsonak abisatuta. • Papera ongi ikasita egon behar du. Zerbait ahazten bazaigu aurrera jarraitu. • Zaharren Egoitzan gaudenean errespetu adierazi behar diegu bertakoei, txorakeriak alde batera utziz. • Emanaldian ozenki hitz egin behar dugu, ongi ahoskatuz. • Ez ahaztu gorputz adierazpena: eskuak, burua, keinuak, mugimenduak eta abar erabiltzea. • Publikoari begiratu eta gidoiak hala behartzen ez badu gogoratu ez zaiola bizkarra eman behar. • Irribarretsu eta energiak beterik agertu behar dugu. Hori lortzeko biderik onena ongi pasatzea eta disf rutatzea da. Antzezten disfrutatzen badugu adinekoek alaitasun hori sentituko dute. 	
<i>Lanean hasi!</i>	
<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoa duzun guztia duzun ala ez ziurtatu. • Gelakide guztiak batera azken entsegua egin. • Denen ekarpenekin ikusitako akatsak komentatu eta zuzendu. 	
Irakasleak emanaldi ebaluatuko du, "Archivos adjuntos" duzun erizpideen arabera, jakin badakizunez zer begiratuko duen bereizki, saia zaitetz era horretan jokatzeko.	
Ekoizpena	
Emanaldia bera	
Ebaluazioa	
Irakasleak ebaluatuko duena:	
Auto-ebaluazioa:	Autoebaluazio fitxarekin zer egin behar den badakizu, ezta? :-)

8. Jarduera

Zer ikasi behar da?

Norberaren lanaz arduratu, autoebalatu eta bukaeran egindako jarduera guztien lan bilduma (portfolioa) era egokian bildu eta irakasleari aurkeztu.

Zer egin behar da?

(Banaka) Emanaldia bukatu dugu baina gure proiektua ez da oraindik bukatu! Ailegatu da eguna irakasleari egindako lan guztiak aurkezteko. Hauek dira eskatuko diren ekoizpenak eta digitalak direnak zer izenarekin aurkeztu behar diren:

Konp.	Ekoizpena	Deskribapena	Fitxategiaren izena
1	Eskutitz formala	Idatzitako eskutitz formalaren dokumentua.	1_eskutitz formala_ikaslearen izena
2	Galdetegia	Norberak osatutako galdetegiaren dokumentua.	2_galdetegia_ikaslearen izena
3	Emanaldia antolatze txantiloia	Taldeka emanaldia antolatze osatu zenuten txantiloia.	3_antolatze txantiloia_ikaslearen izena
4	Gidoia	Google Docs-etik zuek idatzitako zatia kopia eta testu prozesadorean itsatsi.	4_gidoia_ikaslearen izena
5	Eginkizunen egutegia		
7	Emanaldiaren behaketa orria	Irakasleak emango dizu zuk eginiko aktuzioaren ebaluazio orria	7_emanaldiaren_balorazioa
8	Auto-ebaluazioa	Auto-ebaluaziorako txantiloia beteta.	8_autoebaluazioa_ikaslearen izena
6	Kartela	Egindako kartela A3 formatuan eta atzean egilearen izena duena.	

Lanean hasi!

- Proiektuko kapeta pertsonala ireki eta fitxategiei izena aldatu goiko taulan adierazten den bezala.

<ul style="list-style-type: none"> • Aurkeztu behar dituzuen fitxategiak banan-bana ireki eta azken begirada bota, dena ongi dagoen ziurtatzeko. • Eskatzen ez diren fitxategiak karpetatik ezabatu edo beste toki batera eraman. • Karpeta pertsonalaren izenak honako hau izan behar du: <i>PBlanbilduma_ikaslearen izena</i>, alda ezazu • Karpeta pertsonalaren kopia bat egin eta irakasleak sortutako 3. ADINA PROIEKTU BERRIZTATZAILEA karpeta partekatuan gorde. • Kartelak irakaslearen mahai gainean utzi. 	
Ekoizpena	
Irakasleari aurkezpena egiteko, proiektu guztian egindako lanarekin portfolioa osatu.	
Ebaluazioa	
Irakasleak ebaluatuko duena:	
Auto-ebaluazioa:	Ebaluazio fitxa bukatu ezazue jarduera honen autoebaluaziorekin.

Conclusiones

Tras la realización de este trabajo, hemos podido adquirir diferentes conocimientos tanto formales como teóricos, mejorando nuestro aprendizaje como futuros educadores. El documentarnos ampliamente sobre las diferentes alternativas e innovaciones educativas, nos ha permitido mejorar nuestras habilidades, la redacción de citas, la búsqueda de información adecuada, la correcta utilización de las TIC... El habernos informado sobre el tema, nos ha permitido conocer una realidad hasta ahora desconocida, dándonos así una nueva perspectiva sobre el tema tratado.

Al ser este un tema muy diverso y extenso, se puede plantear de distintas maneras. Hemos creído apropiado iniciarlo con un planteamiento general, abordándolo desde el origen de la escritura para poder reflejar la importancia de ésta en la vida cotidiana de las civilizaciones, para poder seguidamente centrarnos en cuatro propuestas teóricas y descubrir su aplicación práctica con la exposición de un proyecto específico.

El planteamiento utilizado en este trabajo, ha sido la guía para poder expresar los conocimientos que queríamos transmitir, siendo conscientes de que el tema es muy amplio y sabiendo que no hemos podido abarcar toda la información. Aunque este trabajo se haya finalizado, puede ser un punto de referencia para poder seguir ampliando los tres puntos de referencia aquí expuestos.

Tras la realización del trabajo, hemos podido conocer distintas ideologías y la aplicación de las mismas, utilizando metodologías innovadoras y eficaces desde nuestro punto de vista. Sin embargo, la panorámica de la situación actual en la que nos encontramos, dificulta mucho la aplicación de las mismas, tanto por el sistema educativo como por la situación económica en la que nos encontramos hoy en día. Porque para poder realizar un cambio en el sistema educativo, haría falta un cambio estructural completo del mismo.

Tras la realización de las practicas escolares, hemos podido observar el gran interés por parte de los educadores por realizar cambios significativos en la metodología del sistema actual, así como la lucha que realizan todos los días ante las dificultades que encuentran en el camino para poder realizarlos, tal y como expone mi tutora de prácticas en la entrevista realizada sobre la conveniencia de una metodología por proyectos (eranskina 1).

Eskola berriak izatetik, proiektu berriztatzailleak aurrera eramateraino // Alaitz Jauregi Iturriotz

Con todo ello, nos hemos percatado de las grandes dificultades que se dan y se han dado a lo largo del tiempo, al querer realizar un cambio significativo en el proceso educativo. Pero tal y como dice la antropóloga Margaret Mead "nunca dudes de que un pequeño grupo de ciudadanos pueda cambiar el mundo. Verdaderamente, eso es lo único que lo ha logrado" (<http://www.inspirationpeak.com/justice-spanish.html>)

Erreferentziak

Bowen, J. (1985). *Historia de la educación occidental*. Tomo I. El Mundo Antiguo: Oriente Próximo y Mediterráneo (200 aC–1054 dC). Barcelona: Herder.

Brun, J. (2001). *Platón Y la Academia*. Publicaciones Cruz O., S A.

Eusko Jaurlaritz. (2009). Oinarrizko gaitasunak EAEko Hezkuntza Sistematan. Gasteiz. Eusko Jaurelaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurelaritz. (2009). *Oinarriko hezkuntza konpetentziak*. Gasteiz. Eusko Jaurelaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gardner, H. (1995). *Inteligencias múltiples*. Buenos Aires: Paidós.

Hik Hasi. (2005). *Pedagogo sortzaileak teorien iturburu*. (17. monografikoa). Donosti: Xangorin.

Lakar, O. (2011). Zer da, ordea, adimena?. *Elhuyar zientzia*, 40, 272. [Erabilgarri (2013-05-22): http://zientzia.net/site_media/pdf/023_21.pdf web orrialdetan]

Lopez-Goñi, I.; Goñi, J.M. (2013). *Hacia un currículum guiado por las competencias. Propuestas para la acción*. In prensa.

Eranskina

IRAKASLE BATI ELKARRIZKETA

Kaixo! Eskerrikasko elkarrizketa hau egitea onartzeagatik. Esan konfidentziala izango dela, beraz ez dela zure datu pertsonalik azalduko.

Elkarrizketa hau eskoletan proiektuka lan egiteko metodologiaren ingurukoa izango da eta bertan emandako informazioa eta elkarrizketa bera nire gradu amaierarako lanean erabiliko ditudala jakinarazten dizut. Beraz hau esanda, elkarrizketarekin hasiko gara:

- Azken aldian modan dagoela ematen du proiektuka lan egiteko metodologia hau, toki askotan entzuten dugulako:
 - Zuk proiektuen bidez lan egiten al duzu?
Ez, zori txarrez ez.
 - Eta inoiz egin al duzu?
Ba ezta ere. Ez dut aukerarik izan orain arte. Aurreko bi ikastetxeetan egon nintzenean liburuekin lan egiten genuen eta aurten ere bai.
 - Eta gustatuko litzaizuke proiektuka lan egitea?
Ba bai, egia esan bai. Lehenik eta behin formakuntza bat behar dut, eta behin formatuta gustatuko litzaidake mundu orretan sartzea, proiektu bidez lan egin eta esperimentatzea. Batez ere ikusita gaur egungo metodologiak, liburuen bidezkoak, ez duela batere ongi funtzionatzen.
- Curriculum arruntak proiektuka lan egitea ahalbidetzen duela uste duzu, edo mugak jartzen dituela?
Egia da curriculuma planteatuta dagoen bezala, liburu bidez lan egitea bultzatzen duela, gai bakoitzerako liburu bat dugulako eta bertan lantzen direlako, ikasgai bakoitzean lortu beharreko helburuak. Egia da baita, ikastetxe askotan lan egiten duten bezala proiektu bidez, egin litekeela. Azkenean ikasgai guztiak uztartzea da proiektu bidez lan eginez eta gaitasun

ezberdinak lantzea beste modu, nik uste atseginago batean eta ikasle gehienetara iristeko aukera eskainiz.

- Hezkuntza departamentuak nahikoa informazio eta baliabide eskaintzen dituela uste al duzu, proiektuak lan egiteko metodologia bultzatzeko?

Ez, orokorrean ez. Nik uste dut proiektu bidez lan egiteko beharra edo nahia, sortu dela irakasleriaren partetik, ikusita egunerokoaren barruan oso zaila egiten dela liburu bidez lan egitea eta nik uste dut behar horren aurrean hasi garela pixka bat mugitzen, informatzen, beste ikastetxe urrunago batzuetan lana nola egiten duten, hortik ideiak ateratzen. Nik uste dut gu mugitzen garela batez ere, irakasleria eta agian horrekin hasi dira formakuntza pixka bat eskaintzen, baina oraindik oso oso berde dago, gehiago egin liteke.

Orduan irakasleak izan dira lehen pausua eman dutenak.

Bai, nik uste dut baietz.

- Eta, orduan, Hezkuntza Departamentua pixka bat inplikatzeko hasi den honekin, uste duzu errekonozimenduren bat ematen dutela: ekonomikoa edo beste motaren batekoa?

Nik momentuz ez dut hori entzun, proiektuekin lan egiteagatik zerbait jaso denik. Bai beste urteetan ikusi izan dut deialdiren bat bereziki proiektu berezi bat, hau da, oso baldintza garbiekin eta zehaztuekin betetzen duenari ba aukera hori ematen diela, ekonomikoa, baina proiektu konkretuak dira, ez metodologiari.

- Orain lanean ari zaren ikastetxe honek uste al duzu proiektuak lan egitea bultzatzen duela? Informazio eta baliabide aldetik gehienbat?

Alde batetik esango nuke, ikastetxe honetan proiektu antzeko batzuk egiten direla, liburu bati segituz, hau da, txanela erabiltzen du. Hor proiektuak planteatzen dira, baina oso bideratua dago eta oso mugatua. Azkenean, liburu bati segitzea da proiektu batera iristeko, baina ez da berezko proiektuen bidezko metodologiaren berdina. Sasi nahasketa bat da. Baina ez. Orduan eskolaren aldetik nik bi urte daramatzat eskola honetan eta ikusi dut eta entzun dut kezka hau, agian proiektu bidez aukera gehiago izango

genituzkeela lana errazago egiteko, ikasleei begira, motibatzeko eta hori guztia, baina oraindik ez gara hasi mugitzen aldaketarako. Baina bai zikloka hasi gara pixka bat bat hizketan eta ematen du hasiko garela, ideia bat badagoela bai eta hortik aurrera ea zer egin liteken, saiatuko gara zerbait aldatzen.

- Guztiok dakigu ikasle guztiek behar desberdinak dituztela. Proiektuen bidez gai desberdinak lantzea egokia dela uste al duzu? Proiektuak ikasleen beharretara iristen direla uste al duzu?

Aukera gehiago eskaintzen dute, hori argi dago. Azkenean liburu batek eskaintzen duena badakigu zer den, liburu bat irakurri, ulertu, idatzi, ariketak egin... oso markatua da, orduan kostatzen zaionari, behar edo zailtasun gehiago dituzten ikasleei, asko mugatzen eta zailtzen die beren garapena eta motibazioan zer esanik ez. Orduan nik uste proiektuen bidez lantzen diren gaitasunak, beste modu batera lantzen direla, liburu bat erreminta bat bakarrik izango litzake, beste baliabide bat gehiago proiektu bat aurrera eramanez ahal izateko, orduan osagarri bezala erabiltzea izango zen egokiena, ze azkenean haurrak eskolatik kanpo ez dira liburu baten aurrean bizi.

Bueno ba hau zen elkarrizketa, eskerrik asko guztiagatik.

Ez horregatik, plazer bat.